

# euskadiko

Autonomia Erkidegoko kultura  
informazioaren egungo egoeraren gaineko

## txostena



# **Euskadiko Autonomia Erkidegoko kultura informazioaren egungo egoeraren gaineko txostena**

**2007ko martxo**

## AURKIBIDEA

	Or.
Aurkezpena .....	1
Metodologia .....	2
1. Zeharkako lerroak .....	4
1.1. Informazioari buruzko ikuspegi orokorra .....	4
1.2. Zeharkako lerroen araberako azterketa .....	7
1.2.1. Azpiegiturak, ekipamenduak eta ekitaldiak .....	7
1.2.2. Kultur praktikak eta kontsumo ohiturak .....	8
1.2.3. Kulturarako aurrekontua eta gastu publikoa .....	13
1.2.4. Kulturaren ekonomi eragina .....	14
1.2.5. Arte eta kultur irakaskuntzak .....	17
1.2.6. Kultura eta komunikabideak .....	18
1.2.7. Euskararen presentzia kulturaren .....	19
1.2.8. Digitalizazioa .....	21
2. Kultur ondarearen azpi-sistema .....	23
2.1. Informazioaren ikuspegi orokorra .....	23
2.2. Sektoreen araberako azterketa .....	24
2.2.1. Artxiboak .....	24
2.2.2. Liburutegiak .....	25
2.2.3. Museoak .....	27
2.2.4. Ondarea .....	28
3. Sorkuntza eta adierazpen artistikoen azpi-sistema .....	31
3.1. Informazioaren ikuspegi orokorra .....	31
3.2. Sektoreen araberako azterketa .....	33
3.2.1. Antzerkia .....	33
3.2.2. Dantza .....	36
3.2.3. Musika .....	38
3.2.4. Arte Plastikoak .....	39
4. Kultur industriren azpi-sistema .....	42
4.1. Informazioaren ikuspegi orokorra .....	42
4.2. Sektoreen araberako azterketa .....	44
4.2.1. Artisau industriak .....	44
4.2.2. Argitalpen industria .....	46

4.2.3. Fonografia industria .....	49
4.2.4. Ikus-entzunezkoen industria .....	52
4.2.5. Multimedia eta Kultura digitala .....	55
V. Azken ondorio eta hausnarketak .....	57
Informazioa eta bere kalitatea.....	57
Iturri eta eragiketak.....	59
Adierazleak .....	61

# Aurkezpena

Aurkeztutako txostenaren helburu nagusia EAEko kultur esparruan dagoen estatistika informazioa aztertu eta baloratzea da, Estatistika Esparruak benetako eta begien bistako erreferenteetan oinarria izan dezan. Horrek bi eginkizun eka-  
rri ditu:

- EAEko kultur informazioa jasotzen duten lehen eta bigarren mailako iturriak identifikatzea.
- Estatistika eragiketen ezaugarriak aztertu eta jasotzen dituzten adierazleei buruzko informazioa ateratzea.

Kulturaren Euskal Planaren esparruan egindako azterketak bereziki hartu dira kontuan, informazio ugari eskaintzen baitute, dauden hutsuneak betez eta beste iturri batzuek eskaintzen dutena osatuz. Bestalde, EAEn oinarritutakoak izanik, egindako azterketarako funtsezko baliabideak dira, jasotzen duten xehe-tasun maila dela eta.

Kulturaren Euskal Planak euskal kultur sistemaren inguruan proposatzen duen eraketa ondorengo eremu edo azpi-sistemek osatzen dute: kultur ondarea, arte sorkuntza eta adierazpideak eta kultur industriak. Horiez gain, badiugu zeharkako lerroak ere. Horixe da, beraz, txosten hau egiteko erabili den esparrua.

# Metodologia

Azterketa egiteko, bigarren mailako hainbat iturriren zerrenda egin zen, kultur estatistikaren informazioa sortzen duten entitate eta organismoak identifikatzea eta kokatzea erraztearren. EAEn kokatutakoez gain, lurralde esparru zabalagoa izan arren, gure ingurune hurbilari buruzko informazioa eskain dezaketenak ere kontuan hartu ziren. Bestalde, iturri, eragiketa eta adierazleen azterketarako informazioa jasotzeko protokoloa diseinatu zen, iturri desberdinen ezaugarri nagusiak identifikatu eta alderatzeko sistema multzo bat ezartzearren.

Txosten honen ikuspegia sektoreen araberakoa da, Kulturaren Euskal Planaren egiturari jarraituz:

## KULTURAREN EUSKAL PLANA: AZPI-SISTEMAK ETA SEKTOREAK

KULTUR ONDAREAREN AZPI-SISTEMA	SORKUNTZA ETA ADIERAZPEN ARTISTIKOEN AZPI-SISTEMA	KULTUR INDUSTRIEN AZPI-SISTEMA
Arkeologia ondarea	Antzerkia	Argitalpen industria
Arkitektura ondarea	Musika	
Industria ondarea	Literatura	Fonografia industria
Etnografia ondarea	Arte plastikoak	
Arte ondarea	Dantza	Ikus-entzunezkoen industria
Liburutegiak	Ahozko tradizioa	
Artxiboak	Artisautza	Multimedia eta kultur digitala
Museoak		

Egitura hori zeharkako ikuspegiari buruzko kapitulu berezi batez osatzen da. Azken batean, txosteneko kapituluak honela daude antolatuta:

- 1: Zeharkako lerroak
- 2: Kultur ondarearen azpi-sistema
- 3: Sorkuntza eta adierazpen artistikoen azpi-sistema
- 4: Kultur industriaren azpi-sistema

Kapituluetako bakoitza, berriz, ikuspegi orokor baten inguruan antolatuta dago, oro har, azpi-sistemari buruzko informazioa eta azpi-sistema osatzen duten sektore edo ikuspegi bakoitzaren azterketa zehatza aurkeztuz. Informazio gehiena kuantitatiboa da, azterketa kualitatiboagoi buruzko aipamenak jasotzen badira ere.

Azken multzo batean, informazioari, iturriari, eragiketei eta adierazleei buruzko ondorio nagusiak aurkezten dira.

# I. ZEHARKAKO LERROAK

## 1.1. INFORMAZIOARI BURUZKO IKUSPEGI OROKORRA

Kultur egoeraren ikuspegi orokor batez hasteko asmoz, kapitulu honetan bereziki zeharkako ikuspegi bat duten iturri eta eragiketak aurkezten dira. Azpiegituren azterketa, kultur ohitura eta praktikak, ekonomia eragina, kulturarako gastu publikoa, arte eta kultur irakaskuntzak, kulturaren eta komunikabideen arteko harremana, euskararen presentzia kulturaren eta digitalizazioa helburu dutenez ari da.

Euskararen presentziari dagokionez, bereziki zeharkako informaziorik ez dagoenez, sektoreen araberrako azterketa eta eragiketei buruzko informazioa atereaz egin da azterketa.

Zehaztu behar da iturri eta eragiketa asko, aztertu ondoren, baztertu egin direla, bereziki kultur informaziorik ez zutelako edo, izanda ere, ez zegoelako gure lurralde esparrurako bereizita. Kulturaren ekonomi eraginarekin lotutakoaz ari gara, hain zuzen ere.

Hurrengo taulan, hainbat gai ageri dira. Alde batetik, informazio iturri eta aztertutako eragiketa ugari eta anitzak. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila edo Kultura Ministerioa bezalako organismoek ematen dute informazioa, eta horiek sektoreen araberrako azterketan ere errepikatuko dira, baina zeharkako eragiketak egiten dituzten beste hainbat ere ageri dira, Eustat –Euskal Estatistika Erakundea– edo Jaurlaritzaren Lehendakaritza, kasu.

Bestalde, estatistikari dagokionez, eragiketa horietako asko ohikoak direla ikusten da, Kulturaren Euskal Plana dela eta sustatutako *Azpiegitura eta ekitaldien mapa* izan ezik.



	ESPARRUA	ITURRIA	ERAGIKETAK ETA AZTERKETAK	
			Ohiko estatistika eragiketak	Beste hainbat eragiketa eta azterketa
Zeharkako lerroak	Azpiegiturak, ekipamenduak eta ekitaldiak	Kulturaren Euskal Planari buruzko azterketak	-	EAEko azpiegitura eta ekitaldien mapa
	Kultur praktikak eta kontsumo ohiturak	Kultura Ministerioa -SGAE	Kultur ohitura eta praktikei buruzko inkesta. 2002-2003	-
		INE	Familia aurrekontuei buruzko inkesta jarraitua (ECPF)	-
		Eustat	Denbora aurrekontuei buruzko inkesta	-
			Informazio gizarteari eta EAEko familietan duen eraginari buruzko estatistika	-
		Jaurlaritzaren Lehendakaritza	Aisialdiko irakurketa ohiturak. 2005	-
			30 zk.dun Soziometroko bertsolaritzari buruzko iriztiak	-
	EAEko Editoreen Elkarteak	Kulturako finantzaketa eta gastu publikoko estatistika .	-	
	Kulturako aurrekontuak eta gastu publikoa	Kultura Ministerioa	Kulturako finantzaketa eta gastu publikoko estatistika	-
	Kulturaren ekonomi eragina	INE	Zerbitzu inkesta . 2006ko Estatuko estatistika urtekaria	-
Kultura Ministerioa		Kultur estatistikei buruzko urtekaria	-	
Eustat		Ekonomia jardueren direktorioa	-	
Arte eta kultur irakaskuntzak	Kultura Ministerioa	Kultur estatistikei buruzko urtekaria	-	

	ESPARRUA	ITURRIA	ERAGIKETAK ETA AZTERKETAK	
			Ohiko estatistika eragiketak	Beste hainbat eragiketa eta azterketa
Zeharkako lerroak	Kultura eta komunikabideak	CIES Ekonomia eta Gizartea Ikeritzeko Zentroa	Euskal Autonomia Erki-degoko komunikabideen entzule kopuruaren azterketa	–
		Jaurlaritzaren Lehendakaritza	EAEko herritarren EITBri buruzko iritziak	–
	Euskararen presentzia kulturaren	Hainbat iturri	Aztertutako hainbat eragiketa	–
	Digitalizazioa	Kulturaren Euskal Planeko azterketak	–	Euskal kultura ondarea digitalizatu, gorde eta hedatzeko plan zuzentzailea

**Kultur praktiken, ohituren eta kontsumoaren** gaia aztertzen duten informazio iturri kopuru handia azpimarra daiteke, bost, hain zuzen, nahiz eta alderdi desberdinetatik aztertu: ohituretatik soilik, kontsumotik, aisialdiaren erabileratik edo irakurketa ohituren edo IETen erabileraren alderdi zehatzagotik.

**Gastu publikoari** dagokionez, Kultura Ministerioa da iturri nagusia, *Kultur estatistiken urtekarian* gai horri buruz atal berezi bat jasotzen baitu. Daukan informazioa *Kultura finantzaketa eta gastu publikoari buruzko estatistika* berezi batetik dator.

**Kulturaren ekonomi eragina** atala izan da iturri desberdinak berrikusteko lanik handiena eman duena, eta, azkenean hiru aukeratu dira, alegia, INE, Kultura Ministerioa eta Eustat. Dagokion atalean, egindako prospezioa zein bertatik ondorioztatutakoak azalduko dira.

Kultura Ministerioa da berriro ere iturri nagusia arte eta **kultur irakaskuntzei** dagokienez, *Kultur estatistiken urtekariko* atal berezi batean jaso bezala.

**Kulturaren eta komunikabideen** arteko harremana bi iturritan dago jasota: CIESek egindako komunikabideen ikus-entzule kopuruaren azterketan eta

Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariak eginiko euskal herritarrek EITBri buruz duten iritziaren gaineko txostenean.

**Kulturari lotutako euskararen** esparruari dagokionez, ez da gaia bereziki lantzen duen iturririk aurkitu, beraz, egin daitekeen azterketa bakarra sektore-etako azterketek, edota irakurketa ohiturak edo bertsolaritza, kasu, aztertzen duten beste hainbat iturririk jasotako informazioa ateratzea da.

**Digitalizazioari** dagokionez, Kulturaren Euskal Plana dela eta landutako azterketa kualitatiboa laburbildu da.

Azkenik aipatu urtero Gasteizko Udalak egiten dituen estatistikak, Urtekari moduan bilduta, eta, kulturari dagokionez, honako hauei buruzko informazioa jasoz: liburutegiak, funtsak, maileguak, bazkideak, bisitariak, museoen inguruko jarduerak, ikuskizunak, emanaldiak eta ikusleak. Informazioa tokian tokikoa da eta administrazio datuetan du oinarri.

## 1.2. ZEHARKAKO LERROEN ARABERAKO AZTERKETA

### 1.2.1. Azpiegiturak, Ekipamenduak eta Ekitaldiak

#### Eragiketen azterketa

Informazio iturri nagusia Deustuko Unibertsitateak egindako *Euskal Autonomia Erkidegoko azpiegitura eta kultur ekitaldien mapa* izenekoa da. Txostena egiteko, aurretiazko hurbilpen bat egin da, ikerketa oraindik amaitu gabe baitago. Ezaugarri horiek izanik, EAEn egindako lehenengoa da eta horregatik hasten da aztertu beharreko unibertsoaren definizio eta tipologiarekin. Azpiegituren mapa bat egiten da eta beste bat ekitaldiei dagokiena, 2004. urtea erreferentziazat harturik, egoeraren ikuspegi kuantitatibo bat eskaintzearren. Lagina unibertsoaren azpiegituren %45ek (499) eta inbentarioan jasotako ekitaldi guztien %60k (228) osatzen dute, datu horiek behin-behinekoak badira ere.

Zeharkako lerro baten azterketa izanik, kultur sektoreak zein balio katearen faseak kontuan hartuta aztertzen dira azpiegiturak eta ekitaldiak.

Hainbat adierazle definitzea eta azterketa honek aurre-test gisa balio izatea ere lehenetsuzkotzat jotzen dute, adierazle horien eraginkortasuna aztertzearren. Horretarako, hiru galdetegi prestatu dira eta ikerketa xedea osatzen duten azpiegitura eta kultur eragileen eskura jarri. Informatika euskarriari dagokionez, GIS euskarria erabili da.

Kultur politika hobetzarren, amaitutako azterketak izan litezkeen hainbat jardun lerro ere eskainiko ditu.

### **Adierazleen azterketa**

Hasteko, azterketan jasotako adierazle kopuru izugarria dela adierazi beharra dago. 904 zenbatu dira, guztira; beraz, ikerketan bertan planteatutako egiturari jarraiki saiaturako gara informazioa laburbiltzen. Azken finean, bi atal handitan antolatzen da: azpiegiturak eta kultur ekitaldiak.

Azterketaren eskemari jarraiki, alde batetik, Mapa bera dugu eta bi kasuetako bakoitzeko deskribapen azterketa bat. Ondoren, kasu bakoitzerako erabilgaitako adierazleen zerrenda aurkezten da:

#### **Azpiegituren mapa (128)**

- Banaketa geografikoa 63
- Identifikazio datuak 25
- Kudeaketa eredia 4
- Edukiaren deskribapena 26
- Edukitzailearen deskribapena 10

#### **Azpiegituren azterketa (637)**

- Identifikazio datuak 201
- Kudeaketa eredia 50
- Edukiaren deskribapena 256
- Edukitzailearen deskribapena 130

#### **Ekitaldien mapa (22)**

- Banaketa geografikoa 22
- Ekitaldien azterketa 117
- Identifikazio datuak 8
- Kudeaketa eredia 45
- Ekitaldien deskribapena 50
- Azpiegituren eginkizuna ekitaldiekiko 14

## **1.2.2. Kultur praktikak eta kontsumo ohiturak**

### **Eragiketen azterketa**

Zeharkako lerro honi buruz informazioa badela esan dezakegu, denbora, lurralde eta gaiari dagokienez duen garrantzia oso anitza bada ere. Bost iturri desberdinetatik datozen zazpi eragiketa aztertu dira.

Hasteko, Kultura Ministerioak sustatu, eta, SGAE - Egile eta Editoreen Elkartearekin hitzartuta, eginiko 2002-2003ko *Espaniako kultur ohitura eta praktikei buruzko inkesta* azpimarratu behar da. Maila horretako funtsezko iturririk garrantzitsuena da. Bere helburu nagusia kultur sektore desberdinetako jardueri dagokienez, herritarren eskaera ezagutzea ahalbidetzen duen informazioa ematea da. Kultur partaidetzako adierazleak erabiltzen saiatzen da, hain zuzen ere, honako hauek balioztatu eta bereiztea ahalbidetuz: kultur jarduera desberdinekiko herritarren ohitura nagusiak; esparru horretako jarduera edota produktuen praktika eta kontsumo maila zehatzak; jarduera horiei eta beren praktikari buruzko jarrera eta iritziak eta dituzten kultur ekipamenduen mailak.

Sektoreetako esparruak honako hauek hartzen ditu bere baitan, alegia, lanbidearekin edo ikasketekin zerikusirik ez duten liburuen irakurketa, aldizkako argitalpenen irakurketa eta liburutegiak, arte eszenikoak eta musika arteak: antzerkia, opera, zartzuela eta balleta/dantza; musika klasikoa eta gaur egungo musika; ikus-entzunezko sektorea: zinea, bideoa, telebista eta irratia; teknologia berriak: ordenagailua eta Internet; museoak, arte galeriak, artxiboak eta monumentuak, zein kulturarekin edo aisialdiarekin lotutako beste hainbat jarduera.

Ikertu beharreko unitatea familiaren etxebizitzan bizi den 15 urtetik gorako pertsona da, eta erabilitako metodologia aldiari behingoa ez den laginketa ikerketa da. Ministerioaren web orriari zein SGAErean ere eskuragarria da.

Aztertutako beste iturrietako bat INEK eginiko *Familia aurrekontuei buruzko inkesta jarraitua* da, etxeetako gastuen hiruhileko bilakaera, zein bere egitura eta banaketa jasotzen dituen, hain zuzen ere. *Kultur estatistiketako urtekarian* eskaintzen diren emaitzak Kultura Ministeriorako egin den aipatutako iturriaren ustiapen berezi batetik datoz.

Esparru honetan Eustatek, egindako eragiketarako kontuan hartu dira, hain zuzen ere, *Denbora aurrekontuei buruzko inkesta eta informazioaren gizarteari eta EAEko familietan duen eraginari buruzko estatistika*.

*Denbora aurrekontuei buruzko inkestaren* helburua EAEko biztanleen ekonomia, kultur eta gizarte jarrerari buruzko informazio zehatz mehatza ematea da. Ildo horretan, aisialdiaren erabilera, ohitura eta praktikei buruzko informazioa eskaintzen du.

1992-1993an abian jarritako inkesta bat da, laginketan oinarritutakoa, 5.000 etxebizitza-5.000 pertsona lagintzat harturik, alegia. Bost urtean behinekoa da

eta lurralde historikoen araberako informazioa jasotzen du. Formatu eta euskarri desberdinetan argitaratzen da.

*Informazioaren gizarateak EAeko familietan duen eraginari buruzko estatistika* IET ekipamenduari eta Interneteko erabilerari buruzko informazioa delako sartu da, nahiz eta jasotako adierazleak ondorengo sektore edo zeharkako lerroei aplikatu lekizkiekeen arren:

- Multimedia eta kultur digitala (sektorea)
- Kultura eta komunikabideak (zeharkako lerroa)

Berriazko estatistika da, laginketa eraren eta urteen araberako emaitzak taulatan biltzen dituen, eta 2000. urtean lantzen hasia. Inprimatutako argitalpenean zein paperean argitaratzen da eta Eustaten webean dago eskuragarri.

Azkenik, badira irakurketa ohituren gaia aztertzen duten bi informazio iturri. Hasteko, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariak sustatutako *Euskal soziometroa*, 26. argitalpenean, *Aisialdiko irakurketa ohiturak* izeneko eranskina argitaratu zuena, hain zuzen ere. Bestalde, Euskadiko Editoreen Elkarteak ere aztertu du gaia *Euskadiko irakurketa eta liburuen erosketako ohiturak 2005* izeneko azterketan.

Lehenengo, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariak Prospekzio Soziologikoko Kabineteak eginikoa, 2004. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) biztanleek beren aisialdian zituzten irakurketa ohituren azterketa da. Horretarako, txostena bost multzotan eratuta dago: lehenengoan, biztanleek irakurketa ohiturei eta maiztasunari buruz duten iritzia aztertzen da; hurrengo lauretan, egunkari, aldizkari, komiki eta liburuen irakurketa ohiturei buruzko azterketa egiten da. Hainbat kasutan, Espainiako estatuko datuekin ere alderatzen da.

Euskadiko Editoreen Elkarteko inkesta Euskadiko irakurketa ohituren eta liburuen erosketari buruzko azterketa da. Alderdi tekniko eta metodologikoen sarrera eta deskribapenetik abiatuta, emaitzen azterketa bat egiten du eta, laburpen gisa, hainbat ondorio kuantitatibo eskaintzen ditu. Datuen bilketa urtekoa da.

Azkenik azpimarratu behar da Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren Prospekzio Soziologikoko Kabinetea 2006. urtean Soziometroetan euskal kulturari buruzko egoeraren araberako azterketa bat ere jasotzen hasi dela. Besteak beste, bertsolaritza edota gastronomiari buruzko iritziak jaso dira, eta musikari buruzko beste bat argitaratzeaz dago. Bertsolaritzaren azterketari dagokionez, zaletasuna, entzule kopurua, entzuteko maiztasuna eta bertsola-

ritzaren definizioa eta euskal kulturaren duen garrantzia jasotzen dira, euskal erakundeek aurrera daramaten sustapenari buruzko iritziaz edota txapelketako finalari buruzko ezagutza mailaz gain. Sektore horretaz ez dago apenas estatistika informaziorik.

### **Adierazleen azterketa**

2002-2003ko *Espainiako kultur ohitura eta praktikei buruzko inkestak* Autonomia Erkidegoen arabera informazioa aurkezten du. EAERI buruzko informazioa duten bederatzi adierazle aukeratu dira.

Honako aldagai hauek aztertzen dira: aisialdiko zaletasunak eta erabilera, ekipamenduak; irakurketa; arte eszenikoak; musika; zinea; bideoa; TB eta irratia; ordenagailuak; museoak, monumentuak; beste praktika batzuk.

Aztertzen dituen adierazle nagusiak honako hauek dira:

- Interes maila;
- Kultur jarduera jakin batean aritzeko ohitura nagusia;
- Kultur jarduera jakin baten praktika edo kontsumo (asistentzia) maila zehatza;
- Asebetetze maila.

*Familia aurrekontuen inkesta jarraituari* dagokionez, egia esan, adierazle hau erabiltzen da:

- Kultur ondasun eta zerbitzuetako gastua hainbat azpi-ataletan bereizita (Ondasun eta zerbitzu mota; sostengatzaile nagusiaren genero, ikasketa maila, lan egoera eta egoera zibila; udalerriko tamainaren eta Autonomia Erkidegoaren arabera banaketa).

*Denboraren aurrekontuei buruzko inkestak* honako aldagaiei buruzko informazioa ere jasotzen du: behar fisiologikoetarako denbora; lana eta prestakuntza; etxeko lanak; etxeko pertsonak zaintzea; gizarte bizitza; aisialdi aktiboa eta kirolak; aisialdi pasiboa eta ibilbideak.

Kultur praktika eta kontsumoarekin lotura zuzenena duten jarduerak aisialdi pasiboaren atalean sartzen dira. Lau adierazle laburbildu dira, zehazki:

- Aisialdi pasibo motako eta eguneko bereizitako batez besteko gizarte denbora; irakurketa, irratia eta TB jarduera motako eta eguneko bereizitakoa.
- Aisialdi pasibo motako eta eguneko bereizitako parte hartzaileen arabera batez besteko denbora; irakurketa, irratia eta TB jarduera motako eta eguneko bereizitakoa.

*Informazioaren gizarteari eta EAEko familietan duen eraginari buruzko estatistikako informazioa sailkatzeko erabilitako aldagaiak honako hauek dira: lotura/sarbide mota, erabiltzaile mota, lotura/sarbide maiztasuna, sarbide lekua, lotura hizkuntza, familia mota, sexua, adina, ikaskuntza maila, jarduerarekiko harremana, Autonomia Erkidegoa eta lurralde historikoa. 18 adierazle bildu dira, guztira.*

Editoreen Elkarteak eginiko *Euskadiko irakurketa ohiturak eta liburuen erosketa 2005* izeneko inkestari dagokionez, honako hauek hartzen dira kontuan:

- Liburuak irakurtzeko maiztasuna
- Irakurle tipologia
- Irakurketa ohiturak
- Erosketa tasa
- Erosketa kanalak
- Liburuaren ingurumaria
- Gehien irakurritako eta gehien erositako liburuak
- Euskarazko irakurketa eta euskara ezagutza

Honako hauen arabera daude sailkatuta: urteak, sexua, adina, ikasketak, okupazioa, habitata, probintzia eta gizarte maila.

Euskal soziometroaren *Aisialdiko irakurketa ohiturak* izeneko azterketako aldagaiak honako hauek dira:

- Irakurtzeko zaletasuna
- Irakurtzeko helburu nagusia
- Irakurketa maiztasuna
- Ez irakurtzeko arrazoiak
- Aisialdian irakurtzeko arrazoi nagusiak
- Lanegun, asteburu eta jaiegunetan irakurtzen emandako denbora
- Irakurketa materialen euskarria
- Egunkari, aldizkari, komiki eta liburuak irakurtzen maiztasuna
- Irakurtzen den egunkari, aldizkari edo liburu mota
- Lanegun, asteburu eta jaiegunetan irakurritako egunkari kopurua
- Irakurtzen diren egunkari, aldizkari, komiki eta liburuetakozko hizkuntza.

Honako hauen arabera daude sailkatuta: lurralde, sexu, adin tarte, udalerrri tamaina, ikasketak maila, sentitutako gizarte maila, irakurle mota eta euskara ezagutzaren arabera.



Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariak eginiko *Bertsolaritzari buruzko iritziei* dagokienez, bertsolariekiko zaletasuna aztertzen da; entzule kopuru eta maiztasuna; bertsolaritzaren definizioa; garrantzia, sustapena eta ezagutza. Lurraldearen, sexuaren, adin taldearen, hizkuntza tipologiaren eta bertsolaritzarekiko zaletasunaren arabera daude bereizita.

### 1.2.3. Kulturako aurrekontua eta gastu publikoa

#### Eragiketen azterketa

Kasu honetan, informazio iturria Kultura Ministerioa da, *Kultur estatistiketako urtekariaren* bitartez. Urtekari horrek, bere aldetik, ondorengo bi informazio iturri ere baditu:

- Kultura Ministerioak bere Estatistika Atalaren bidez eta Ministerioko Aurrekontu Bulego eta Autonomia Erkidegoekin lankidetzan garatutako *Kultura finantzaketa eta gastu publikoari buruzko estatistika*.
- Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Toki Entitateen Finantzaketa Koordinazioko Zuzendaritza Nagusiak eginiko *Toki entitateetako aurrekontuen kitapenen estatistika*.

Bi kasuetan, Estatuko Estatistika Planari dagozkion eragiketak dira. Aukeratutako estatistikak autonomia mailan bereizteko irizpidearekin laburbildu dira eta 2000 eta 2003ko datuei dagozkie.

*Kultura finantzaketa eta gastu publikoari buruzko estatistika* urtero egiten den ikerketa bat da eta bere helburua, aitortutako betebeharren fasean, eta administrazioak bere esparruetako bakoitzean eginda, kultur jardueretan kitatutako urteko gastuari buruzko informazioa eskaini eta gastu eta xede jakinaren ekonomi izaeraren arabera xehekatzea da. Denboran zehar, konparaketak errazten dituzten eta Europako Batasuneko Estatistika Bulegoaren (Eurostat) ildoekin bateragarriak diren adierazleak eskaintzea du helburu. 2003ko urrian ezarri zen, Eurostateko Gastu Publikoa izeneko lantaldeak mugatutako ildoek jarraiki. Lehenengo ikerketa 2000.eko ekitaldiko aurrekontuen kitapenen inguruan egin zen eta 2005. urtean bultzada handia jaso zuen, alde batetik, bere lanketan Autonomia Erkidego eta hirien lankidetzari esker, eta, bestetik, Ogasun Ministerioak eskura zituen Toki Administrazioari buruzko emaitza berriei esker.

#### Adierazleen azterketa

Ahal denean, informazioa ondorengo ezaugarrien arabera xehekatuta eskaintzen da:

- Gastuaren ekonomi izaera
- Gastuaren xedea
- Autonomia Erkidegoa

Kitatutako gastu osoarekiko eta Barne Produktu Gordinarekiko gastu horren pisu erlatiboaren adierazleak ere eskaintzen dira.

Hain zuzen ere, Autonomia Erkidegoko informazioa eskaintzen duten ondorengo adierazleak aukeratu dira:

- Administrazio autonomikoak kulturaren kitatutako gastua
- Administrazio autonomikoak kulturaren xedearen arabera kitatutako gastua
- Administrazio autonomikoak kulturaren gastuaren ekonomi izaeraren arabera kitatutako gastua
- Toki Administrazioak kulturaren gastuaren ekonomi izaeraren arabera kitatutako gastua
- Toki Administrazioak kulturaren entitate motaren arabera kitatutako gastua
- Toki Administrazioak kulturaren gastuaren xedearen arabera kitatutako gastua

## 1.2.4. Kulturaren ekonomi eragina

### Eragiketen azterketa

Kulturaren ekonomi eraginaren atal handi honen barruan enplegua eta okupazioa edo enpresa ehundura bezalako gaiak hartu dira kontuan eta INEren ondorengo eragiketak aztertu dira, Ministerioaren *Kultur estatistiketako urtekarian* ezarritako ildoari jarraiki:

- *Biztanle aktiboei eginiko inkesta*
- *DIRCE Enpresetako Direktorio Zentrala*: Bere helburu nagusia hainbat inkesta lantzeko esparru bat edukitzea eta Espainian dauden enpresa kopuruari buruzko egiturazko datuak eskaintzea da, ekonomi jarduera nagusiaren arabera, soldatapekoen tarteen arabera, izaera juridikoaren arabera eta ezarpen geografikoaren arabera sailkatuta, hain zuzen ere. Administrazio estatistika bat da, administrazio eta estatistika jatorriko hainbat iturritatik datozen lehen mailako datuetan oinarritutakoa (Ekonomi Jardueren gaineko Zerga, Lan Errenten gaineko Atxikipenak, Gizarte Segurantzari eginiko Kotizazio Kontuak eta beste hainbat administrazio eta estatistika iturri), eta INEko estatistika eragiketa arruntetatik datorren informazioarekin osatuta. Datuoi harmonizazio eta integrazio sistema bat ezartzen zaie,

estatuko lurraldean kokatutako enpresa espainolak informazio bakarreko sistema baten barruan biltzearen.

- *Industri inkesta*: industriren errealitatea ezagutzeko eta beren egiturazko ezaugarri nagusien azterketa egiteko oinarritzko informazioa izatea du xede.
- *Urteko zerbitzuei buruzko inkesta*: laginketan oinarritutako ikerketa bat da, sektorea osatzen duten enpresen egiturazko eta ekonomia ezaugarrien azterketarako egina.

Emaitzak honako hauek izan dira:

- EPARI dagokionez, Urtekariak Autonomia Erkidegoen arabera enpleguaren datu orokorra jasotzen du.
- DIRCEri dagokionez, Urtekariak iturri horretatik jasotako Autonomia Erkidegoaren arabera bi adierazle eskaintzen ditu. Ezin izan da iturria modu independentean aztertu, bere erabilera mugatua baita.
- *Industri inkestari* dagokionez, ez du informazio esanguratsurik, ez Urtekarian ezta modu independentean ere.

*Urteko zerbitzuei buruzko inkesta* kulturaren ekonomi eraginari buruzko informazioa eskaintzen duen bakarra da, eta, azterketarako *Kultur estatistiketako urtekarian* ageri diren adierazleak erabili dira.

Aztertu ondoren ere, *Lan egoeraren arabera inkesta* (Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa) ez dela iturri baliagarria iritzi diogu, interesgarri izan litezkeen adierazleei dagokienez, ez baitu Autonomia Erkidegoen arabera berezitako informaziorik eskaintzen. Adierazle horiek honako hauek lirateke:

- Lan efektiboak sexuaren arabera banatuta eta sektore eta jardueraren atal eta adarren arabera.
- Lan efektiboak kontratu motaren arabera banatuta eta sektore eta jardueraren atal eta adarren arabera.
- Langile bakoitzeko hiruhileko batez besteko lanaldi efektiboa, lanaldi motaren arabera banatuta eta sektore eta jardueraren atal eta adarren arabera.

*Jarduerarekiko biztanleei eginiko inkestak* (Eustat) ez du informazio esanguratsurik kulturaren ekonomi eraginaren azterketarako, datuen bereizmen maila ez baita nahikoa, eta ezin da zehaztu zeintzuk dagozkion kulturaren gaiari. Eragiketa horrek eskaintzen duen informazioa okupazio edota langabezia bezalako adierazleak dira.

*Ekonomia jardueren direktorioak*, CNAE-93 kontuan hartuta, EAEn dauden enpresa eta establezimendu kopuruari buruzko informazioa eskaintzen du soilik. Beraz, zehaztu beharko litzateke adierazle horiek garrantzitsuak diren kulturaren ekonomi eraginaren azterketarako. Edonola ere, Kultura Ministerioak ezarritako irizpidea jarrai liteke. Irizpide horren arabera, ondorengo zerrendan ageri diren CNAE-ak kultur esparruari lotuta daude:

- **221** Argitalpena.
- **222** Arte grafikoak eta lotura duten zerbitzuetako jarduerak.
- **223** Grabatutako euskarrien erreprodukzioa.
- **323** Soinu eta irudia hartu, grabatu eta erreproduzitzeko aparatuen fabrikazioa.
- **363** Musika tresnen fabrikazioa.
- **921** Zinematografia eta bideo jarduerak.
- **922** Irrati eta telebista jarduerak.
- **923** Bestelako arte eta ikuskizun jarduerak.
- **924** Berri agentzien jarduerak.
- **925** Liburutegi, artxibo, museo eta beste hainbat kultur erakunderen jarduerak.

Ministerioak ezin izan du kultur jarduera xehekatuagorik kontuan hartu, besteak beste: *Kultur produktuen handizkako eta txikizkako merkataritza*, bost zifratoko epigrafeetan jasotakoak, 51.471 eta 52.470, hain zuzen; *Arte galeriak*, 52.487 zifraz adierazitakoak eta *Argazkigintza*, 74.81 zifraz adierazitakoa.

2003ko *Biztanle aktiboen prestakuntzari buruzko inkesta* eta 2004ko *Lan merkatuaren errolda-eskaera fasea* izeneko iturriak Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantzaren Sailak banan-banan aztertuta, honako ondorioa iritsi da, alegia, horietako ezeinek ez duela kultur esparruari buruzko inolako informaziorik eskaintzen, datuak bilduta eskaintzen baitira, xehetasun mailara iritsi gabe.

### **Adierazleen azterketa**

Ondorio gisa esan behar da bereziki kultur adierazleak eta EAEko informazioa eskaintzen duten bakarrak Kultura Ministerioak eskaintzen dituela, alegia, kultur enplegua, kultur enpresak eta Autonomia Erkidegoen arabera eta ekonomia jarduera nagusiaren arabera kultur enpresak.

*Urteko zerbitzuei buruzko inkestan*, Autonomia Erkidegoen arabera informazioa ageri da:

- Ikus-entzunezko zerbitzuen datu nagusiak, okupazio tarteen arabera
- Ikus-entzunezko zerbitzuetan okupatutako pertsonala, okupazio eta lan araubidearen tarteen arabera
- Kultur eta jolas jardueren datu nagusiak, okupazio tarteen arabera
- Kultur eta jolas jardueretan okupatutako pertsonala okupazio eta lan araubidearen tarteen arabera

### 1.2.5. Arte eta kultur irakaskuntzak

#### Eragiketen azterketa

Kasu honetan kulturaren ekonomi eraginaren antzera gertatzen da. Iturri nagusia, berriro ere, Kultura Ministerioa da, hiru eragiketatan oinarri duen *Kultur estatistiketako errekariarekin*. Kultur lanbideekin lotutako irakaskuntzetako zentro, irakasle eta ikasleei buruzko estatistika bilduma (Hezkuntza eta Zientzia Ministeriotik, INEtik eta Lan eta Gizarte Gaietako Ministeriotik jasotakoak). Erregimen Bereziko Arte Irakaskuntzak aztertzen ditu (arte plastikoak eta diseinua; musika, dantza eta arte dramatikoak), Erregimen Orokorreko Irakaskuntzak (Batxilergoko arteen modalitatea eta kultur esparruko Lanbide Heziketa), kultur esparruko Unibertsitate Irakaskuntza eta kultur esparruko Lanerako Lanbide Heziketa.

Erregimen Bereziko arte irakaskuntzako datuak zein Erregimen Orokorrekoak Autonomia Erkidegoekin lankidetzan, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioiko Estatistika Bulegoak prestatzen dituen *Unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzetako estatistiketatik* datoz. Unibertsitateko irakaskuntzari dagozkion emaitzak INEk egindako *Unibertsitate irakaskuntzako estatistikatik* lortu da. Lanerako Lanbide Heziketari buruzko informazioa *Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioiko Lanerako Prestakuntza estatistikatik* ateratakoa da.

#### Adierazleen azterketa

Jasotako azterketa aldagaiak honako hauek dira: matrikulatutako ikasleak, ikastetxeak eta irakasleak, eta ikasketa mota edo mailaren, zentroko titulartasunaren eta sexuaren arabera sailkatuta daude.

Autonomia Erkidegoen araberako informazioa duten adierazleak honako hauek dira:

- Arte plastikoen eta diseinuaren irakaskuntzako ikastetxe, irakasle eta matrikulatutako ikasleak

- Arautu gabeko musika irakaskuntzako ikastetxe, irakasle eta matrikulatutako ikasleak
- Araututako dantza irakaskuntzako ikastetxe, irakasle eta matrikulatutako ikasleak
- Arte dramatikoko irakaskuntzako ikastetxe, irakasle eta matrikulatutako ikasleak
- Batxilergoko arteen modalitateko ikastetxe eta matrikulatutako ikasleak
- Kultur lanbideekin lotutako Lanbide Heziketako prestakuntza zikloetan matrikulatutako ikasleak

## 1.2.6. Kultura eta komunikabideak

### Eragiketen azterketa

Komunikabideei buruzko informazio iturria *Euskal Autonomia Erkidegoko komunikabideen entzulegoaren azterketak* egiten dituen CIESeko (Ekonomia eta Gizarte Ikerkuntza Zentroko) estatistikak dira. 2005eko TB, irrati, egunkari eta Interneteko ikus-entzuleak aztertzen ditu, lurralde historikoak bereizita kontuan hartuta (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa), eta autonomia mailako datu orokorrak ere jasotzen ditu. Komunikabideek, publizitate agen-tziek eta iragarle handiek eginiko eskaeraz egiten da azterketa, horiek ere erabiltzaileak izanik. Datuen laburpen bat CIESeko web orrian argitaratzen da modu irekian.

Edonola ere, komunikabideen azterketa bat da, ez horrenbeste kultura eta komunikabideen arteko loturari buruzkoa. Ohiturei edota multimedia eta kultura digitalari buruzko beste hainbat azterketatan, zeharkako lerro horri buruzko hainbat adierazle ere aurkitzen ditugu.

Beste iturri bat Jaurlearitzaren Lehendakartzako Prospekzio Soziologikoko Kabinetea da, izan ere, 2006ko abuztuan EAEko biztanleek EITBri buruz dituzten iritzien inguruko txosten bat argitaratu zuen. Txostenaren helburua, EITB komunikazio taldea den aldetik, berari buruzko ezagutza eta balorazioa aztertea da, bai maila orokorrean bai hainbat alderdi zehatzi dagokienez. ETBko programazioaren balorazioa ere aztertzen da beste hainbat telebista katearekiko. Esan behar da Kultura Sailak eskatuta eginiko txostena dela.

Azkenez, OJDk hainbat komunikabideren tirada eta difusioari buruzko informazioa aurkezten du.

### Adierazleen azterketa

CIESen azterketan honako adierazleak aztertzen dira:

- Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako komunikabideen entzule kopuru orokorra
- Komunikabideen entzule kopuru orokorra (Absolutua)
- Internet Euskadin eta Nafarroan
- Prentsa irakurketa Euskadin eta Nafarroan
- TBko ikus-entzule kopurua (atzoko egunez) Euskadin eta Nafarroan
- Irratietako entzule kopurua irrati kateen arabera Nafarroan
- Irratietako entzule kopurua irrati kateen arabera Euskadin

Datuak ondorengo aldagaien arabera sailkatuta daude: elkarrizketa kopurua, biztanlegoa, sexua, adina, familia rola, gizarte maila, eskualdeak, habitata, euskararekiko egoera eta ikasketa maila.

Prospekzio Soziologikoko Kabineteari dagokionez, honako gai hauek aztertzen dira: Komunikazio taldearen ezagutza; EITBko atributu eta edukia; EITBri buruzko iritziak zerbitzu publikoa den aldetik, eta TB kateak. Aldagaiak lurralde, sexu, adin talde eta euskararen ezagutzaren arabera sailkatuta daude.

### 1.2.7. Euskararen presentzia kulturean

#### Eragiketen azterketa

Kulturean euskarak duen presentziara zuzendutako zeharkako lerroari dagokionez, ez da horri buruzko inolako azterketarik edota iturri berezirik aurkitu. Euskararekiko Eustatek egiten dituen eragiketetatik, ez da kultur esparruarekin bereziki lotu daitekeenik, erabilera eta praktikara bideratuta baitaude.

Zeharkako lerro horri buruzko informazioa aurkeztearren, Euskadiko kultur esparruko azterlan guztien azterketa bat egin da eta euskara aldagai gisa erabiltzen duten datu guztiak laburbildu dira.

*Antzerki eta dantzari buruzko azterketan* (Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, 2006) euskararen presentzia ondorengo adierazleetan aztertzen da:

- EAEn programatutako antzerki emanaldiak
- EAEn programatutako antzerki ikuskizunak
- EAEn programatutako antzerki emanaldietako ikus-entzuleak
- EAEn programatutako antzerki emanaldietako leihatilako diru sarrerak
- EAEn programatutako antzerki ikuskizunetako kontratazio kostuak

Sareak biltzen duen informazioan, bestalde, euskara antzerki programazioarekiko aztertzen da.

*Argitalpen industriari* dagokionez, Euskadiri buruzko 3 azterketa ditugu: Liburua Sustatzeko Zuzendariordetza Nagusiak egindakoa; Euskadiko Editoreen Elkartearena eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Kulturaren Euskal Planaren esparruaren barruan eskatutakoa. Azterketa horietan euskarak kulturaren duen presentziari buruzko informazioa aurki daiteke, honako adierazle hauetan:

- Argitalpen hizkuntza
- Itzulpen hizkuntza
- ISBNn inskribatu eta euskaraz argitaratutako liburuak
- ISBNn inskribatu eta euskaraz itzultako liburuak
- Euskaraz editatutako titulu kopurua
- Euskaraz editatutako ale kopurua
- Batez besteko ale kopurua
- Katalogoko tituluak
- Fakturazio kopurua
- Merkaturatze bideak
- Barne merkaturako salmenta xedea
- Argitaratutako tituluak
- Fakturazio bolumena
- Egile eskubideen araberako fakturazioa
- Irakurritako aldizkari eta egunkariak
- Irakurketa maiztasuna
- Urteko erosketak
- Liburuen aukeraketa

Fonografia sektorearen azterketarako EA Erekin lotutako 2 azterketa ditugu; *Euskal Autonomia Erkidegoko fonografia sektorearen egoerari buruzko azterketa* (Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila – 2004) eta ISMNn (Arte Eszenikoen eta Musikaren Estatuko Institutuko Musika eta Dantzako Dokumentazio Zentroa- INAEM- 2002) inskribatutako *Espainiako musika edizioaren estatistika ustiapenarena*. Horietan euskararen presentzia ondorengo aldagai hauetan zehazten da:

- ISMNn inskribatu eta euskaraz argitaratutako musika obrak
- ISMNn inskribatu eta euskarara itzultako musika obrak
- Diskografia enpresetako berrikuntzak
- Banaketa



- Salmenta

*EAEko azpiegitura eta ekitaldien mapan*, programazioaren hizkuntza eta informazio zerbitzuko hizkuntza izeneko aldagaiak jasotzen dira.

*Euskadiko irakurketa ohiturei eta liburuen erosketari buruzko azterketako* hainbat atal laburbildu ahal izan dira, bertan irakurketa hizkuntza, euskaraz irakurtzea eta euskara ezagutza eta euskarazko liburuak erostea aztertzen baitira.

Logikoaenez, Soziometroan bertsolaritzari buruz egiten den azterketan, hizkuntza tipologiaren aldagaia da aztertutako elementu guztiak elkarrekin gurutzatzeko erabilitakoetako bat. Era berean, EITBri buruzko iritzi azterketan, euskararen ezagutza sailkapen aldagai gisa hartzen da kontuan.

*Informazio gizarteari eta EAEko familietan duen eraginari buruzko estatistikan* aurkitzen den kultura digitalaren edo kontsumo ohituren sektoreari dagokionez, euskararen presentzia Interneteko erabiltzaileen aldagaian bereizita ageri da (nabigazio hizkuntza).

## 1.2.8. Digitalizazioa

2005eko azaroan amaitu zen Ibermatikak Kulturaren Euskal Kontseilurako egindako *EAEko kultura ondarea digitalizatu, gorde eta hedatzeko plan zuzendaria* izeneko azterketa. Bere izaera berritzailea azpimarratzen da, hau bezalako gai zabal eta konplexua modu orokor eta egituratuan aztertu duten munduko estatuak gutxi izan baitira.

*Plana* egiteko, Kulturaren Euskal Planerako eratutako lantaldeetako emaitzak zein *Plana* bera ere hartu ziren kontuan. Beste hainbat herritako artearen egoera, aldeko jarrerak eta aurrera eramaten ari diren jardunak ere aztertu ziren.

### **Eduki nagusiak**

Helburuak lortzeko, **zortzi jardun lerro** proposatzen dira:

- EAEko ondare digitalaren esparruko jardueren koordinazio eta exekuzioa sustatzea, horretarako behar diren erabaki, kudeaketa eta informazio mekanismoak sortuz eta bultzatuz.
- Herri administrazioek ondare digitala zaindu eta eskuratzeko esparruan garatu beharreko eredu eta eginkizunak definitzea.
- Ondare digitalaren esparruan erreferentziazko esparrutzat balio dutenildoak, estandarrak, irizpideak eta gomendio teknikoak egokitu, garatu eta, hala balegokio, lantzea.

- Euskal ondare digitalaren garapena sustatzea, interes orokorreko aktibo unibertsaltzat.
- Formatu digitaleko EAeko kultur ondarearen sorkuntza sustatzea, bere alderdi desberdinetan.
- EAE barruan zein kanpoan, euskal ondare digitalaren hedapena sustatzea, barne kohesioko zein kanpoko sustapeneko bide gisa.
- Ondare digitala kudeatzeko erakundeei eginkizun hori garatzeko behar duten prestakuntza eta euskarri teknikoa ahalbidetzea.
- Ondare digitalaren arloan legezko esparruaren garapena zein zuzen ezartzeko behar diren euskarriak sustatzea.

Zortzi jardun lerro horiek 28 proiekturen bitartez garatzen dira, nagusiki, 2006-2010 bitarteko aldian gauzatuko direnak. Asmoa EAeko kultur ondarea osatzen joatea da, geroko belaunaldiei begira gordetzeko bermeeekin eta hedatzeko eta ezagutzeko aukerak ahalik eta ugariak izan daitezzen ziurtatuz.

## II. KULTUR ONDAREAREN AZPI-SISTEMA

### 2.1. INFORMAZIOAREN IKUSPEGI OROKORRA

Ondorengo taulan artxiboak, liburutegiak, museoak eta ondarea izeneko sektoreei buruzko informazioa jasotzen duten iturri eta estatistika eragiketen zerrenda jasotzen da.

	SEKTOREA	ITURRIA	ERAGIKETAK ETA AZTERKETAK	
			Ohiko estatistika eragiketak	Beste hainbat eragiketa eta azterketa
ONDAREA	Artxiboak	INE. Kultura Ministerioa	Artxiboetako buruzko estatistikak (Estatuko titulartasuna) 2004	–
	Liburutegiak	INE. Kultura Ministerioa	Liburutegietako buruzko estatistikak	–
		Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila	EAEko udal liburutegiak. 2004	–
		Kulturaren Euskal Planeko azterketak	–	EAEko irakurketa publikoaren mapa. 2006
	Museoak	Kultura Ministerioa	Museo eta museo bildumetako buruzko estatistikak	–
		Kultura Saila	Euskadiko museo eta bildumak. 2004	–
	Ondarea	Kultura Ministerioa	Kultur intereseko ondasunen erregistroko eta ondasun higigarrien inbentarioko datuen ustiapena	–
	Etnografia ondarea	Kulturaren Euskal Planeko azterketak	–	Euskal etnografiako ondarearen inbentario batekiko hurbilpena. 2005

Lehenengo begiratu batean, EAeri dagokionez ezagun da, liburutegiak eta museoak direla informazio kopuru handiena dutenak. Kultura Ministerioak zein Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak ohiko estatistika eragiketak sortzen dituzte, denboran zeharko bilakaera aztertzea ahalbidetuz, eta bi iturrien arteko informazio alderagarria dute. Edukiei dagokienez, EAEn sortzen diren estatistikak Kultura Ministerioaren estatistiken parean joan direlako gertatu da hori. Haie-tako bakoitzaren ezaugarri bereziak aztertuko dira sektore bakoitzerako egingo den azterketa zehatzean.

Bestalde, EAEko informazio gutxi izan arren, beste bi eragiketa ere jaso dira, izan ere, gure ingurunean ezer berezirik jaso gabeko bi sektore ukitzen baitituzte. Bata, estatuko titulartasuna duten buruzko estatistika bat da, adierazleen erreferentzia gisako interesa duena, hain zuzen, eta Kultura Ministerioaren *Kultur estatistiken urtekarian* jasotakoa bestea, ondareari buruzko datuak jasotzen dituen eta sektore honetan erreferentzia bakarra izanik aztertu egingo dena. Egia esan, *Kultur intereseko ondasunen erregistroko eta ondasun higigarrien inbentarioko estatistika ustiapen* bat da.

Kasu guztietan, denboran hurbileneko eragiketak aztertu dira, 2004ko datuak jasoz.

Etnografia ondareari dagokionez, Kultura Sailak izaera kualitatiboa duen *Euskal etnografia ondarearen inbentario bateranzko hurbilpena* izeneko azterketa bat agindu zuen.

## 2.2. SEKTOREEN ARABERAKO AZTERKETA

### 2.2.1. Artxiboak

#### Eragiketen azterketa

Kultura Ministerioak egindako eta 2005-2008 Estatuko Estatistika Planeko 2006. programan jasotako *Estatuko titulartasuna duten artxiboei buruzko estatistika* da EAeri buruzko zenbait informazio jasotzen duen estatistika eragiketa bakarra.

Jasotzen duen informazioa estatuaren titulartasuna duten eta Kultura Ministerioaren kudeaketapeko 11 artxiboen eroldakoa da. Horien artean, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Lurraldeko Artxibo Historikoak daude. Ikusten denez, EAeri buruz jasotako informazioa oso urria da eta ez du sektorearen errealitatea

islatzen. Administrazio datuetan oinarritutako estatistika bat da. Ez dugu erabilitako tresna informatikoen berri.

Aztertzen dituen aldagaiak honako hauek dira: ekipamendua, zerbitzuak, eskuragarritasuna, pertsonala, ekonomi baliabideak, funtsak, garatutako jarduerak eta eraikinaren ezaugarriak, mota eta titulartasunaren arabera sailkatu eta bereizita.

Estatistikaren hedapena Kultura Ministerioaren *Kultur estatistiken urtekarian* egiten da web orriaren bitartez edota liburu batean argitaratuta. Urtean behin bildu eta argitaratzen dira datuak.

### **Adierazleen azterketa**

Bederatzi adierazle aztertu dira, baina Autonomia Erkidegoen arabera bereizita dagoen bakarra estatuko artxiboetan biltegitarako erabilitako azalera da.

## **2.2.2. Liburutegiak**

### **Eragiketen azterketa**

Hasteko azpimarra daiteke eragiketa kopuru handiena eginiko sektorea dela<sup>1</sup>. Horregatik azter daiteke denboran zehar adierazleen bilakaera eta beste iturri batzuetakoekin alderatu, galdetegiak hobetu egin dira, horiek lortzeko sistematizatutako bideak badira, etab. Ohiko bi estatistika eragiketa aztertu dira zehatz mehatz: INEk egiten duena eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Liburutegi Zerbitzuak egiten duena.

Lehenengoa, 2004ko *Liburutegiei buruzko estatistika*, 1986an abian jarritako bi urtean behineko eragiketa bat da eta Estatuko Estatistika Planean jasota dago. Autonomia Erkidegoei buruzko informazioa jasotzen duelako hartu da kontuan, izan ere, Kultura Ministerioko Liburuaren, Artxiboen eta Liburutegien Zuzendaritza Nagusiak, Liburutegien arteko Koordinaziorako Zu-

1. Dokubidek egindako eta 2003ko maiatzean argitaratutako *Las bibliotecas públicas del SNBE. Informe estadístico 2001* izeneko lehenengo azterketaren aurkezpenean azaltzen denez, “Liburutegi Zerbitzuak 1999. urtean informatika tresna bat prestatu zuen, Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalean elkartutako liburutegi publikoetako estatistika informazioa lortu eta tratatzearen. Datuak urtean behin biltzen dira eta liburuzainek bidaltzen dituzte. Liburutegi Zerbitzuak 2002. urtetik Kultura Ministerioko pertsonalak eta Autonomia Erkidegoetako ordezkariak osatutako *Liburutegi publikoetako estatistikei* buruzko lantalde batean parte hartzen du. Kultura Ministerioko *Estatuko liburutegi publikoetako estatistika urtekaria* izeneko urteko argitalpenean ere parte hartu dute.”

zendariordetza Nagusia 1997. urtetik hona Autonomia Erkidegoetako liburutegi publikoko zerbitzua sustatu eta eskaintzeaz arduratzen direnen arteko lankidetzak bultzatzen aritu da. Lankidetzak esparru horretan, *Estatuko liburutegi publikoei buruzko estatistika* datuen bilketan elkarrekin lan egitea erabaki zen, irudi orokor bat emateko eta beste herri batzuetako egoerarekin konparazioak ezar zitezten.

Informazio sistemari dagokionez, erroldako datuak jasotzen ditu, estatistikak dira berez.

Emaitzak hainbat euskarri eta bideren bitartez hedatzen dira, besteak beste, *Liburutegietako estatistika*, *Estatistika urtekaria*, *Espainia zifratan* eta INEren zein Kultura Ministerioaren web orrien bitartez.

Aztertutako bigarren eragiketak, Ikertalde Grupo Consultor, S.A.-k eginkoak *EAEko udal liburutegiei buruzko estatistikak* du izena eta 2004. urteko informazioa jasotzen du. Azterketan 259 liburutegik hartu dute parte. Estatistika 2001. urtean hasi zen egiten, urtean behingo maiztasunez.

Estatistika hori lantzeko erabilitako informazio iturriak EAEko udal liburutegi publikoek emandako datuetan oinarritzen dira (liburutegiek emandako informazioa *Absysnet* informatika aplikazioan erregistratuta dago). Erroldako datuak dira. Informazioaren erregistroa Absysneten egiten da eta liburutegiek beraiek egiten dute. Gainera, Accessen datu base bat dago eta ustiapena Barbinen bidez egiten da. Erabiltzaileen sarbidea kontrolatuta dago eta aldiro egiaztapenak egiten dira.

Argitalpen berezi bat egiten da maiztasun aldakorarekin. Kasu honetan, datuak 2004koak dira eta 2005ean argitaratuta daude.

Azkenik, *EAEko irakurketa publikoaren mapa* ere aztertu da, beste hainbat iturriren sintesi eta azterketa eragiketa bat izanik, tartean lehen aipatutakoak izanik. 2004. urtean egin zen eta argitaratzeke dago. Iturri hau aukeratu eta proposatzen dituen adierazleengatik jaso da.

### **Adierazleen azterketa**

INEk 35 adierazle aurkezten ditu eta aztertzen dituen aldagaiak honako hauek dira: titulartasuna; sarbidea; funtzionamendu urteak; ordutegia; azalera; ekipamendua; funtsak; liburutegi motaren arabera sailkatutako pertsonala eta gastu arruntak.

Eusko Jaurlearitzako Kultura Saileko estatistikak aztertzen dituen aldagaiak honako hauek dira: ekipamendua, zerbitzuak, eskuragarritasuna, pertsonala,

ekonomia baliabideak, funtsak, garatutako jarduerak eta eraikinaren ezaugarriak. Lurralde, eskualde eta biztanleen estratuen arabera sailkatzen dira. 34 adierazlek aurkezten dute informazioa.

Azkenik, *Irakurketa publikoaren mapak* 19 adierazle eta ratio jasotzen ditu.

### 2.2.3. Museoak

#### Eragiketen azterketa

Bi eragiketa aztertu dira. Bata Kultura Ministerioak landu eta 2000. urtean ezarritakoa da. 2004ko *Museo eta museo bildumei buruzko estatistika* izena du. Estatuko Estatistika Planean jasotako ikerketa da eta bi urtean behinekoa. Helburu anitzak ditu, besteak beste, herritarrei kultur erakundeei buruzko oinarritzko datuak eskaintzea; Kultura Administrazioen eskura museo ondarearekiko erabakiak hartzeko beharrezko informazioa jartzea eta autonomia eta estatuko zein nazioarteko erakundeen estatistika informazio eskaerei erantzutea.

Eragiketa horretan inkesta bat egin da, errolda datuak eta laginketa datuak jasoz, eta inkestarako Ministerioak informatika aplikazio bat landu du eta Autonomia Erkidegoen, Defentsa Ministerioaren eta Estatuko Ondarearen esku jarri.

Zabalkundea Ministerioaren web orrian zein *Kultur estatistiken urtekarian* agertzen den informazioaz gain, urte birik behineko argitalpen monografiko baten bitartez egiten da.

Bestalde, *Euskadiko museo eta museo bildumak. 2004ko estatistika txostena* izeneko ikerketa aztertu da. Txostena 2006. urtean argitaratu zen<sup>2</sup> eta AIC, Gestion de Capital Intelectual, S.A.-k egin da. Sektorearen gaur egungo egoera bistaratzeko aukera ematen duen tresna da, lehenengo maila batean dauden beharrak detektatzeko, eta, batez ere, museo eta bildumen euskal kultur eskaintzan eta, oro har, gizartean, duten eginkizuna neurtzeko. Bestalde, beste lurralde ingurune batzuekin konparatzeko aukera eman dezake. Bi urtean behingo estatistika da.

Azterketan EAEn dauden 67tik, lurralde historikoetako 43 museo eta bildumak hartzen dute parte.

Museoen sektoreari buruzko alderdi nagusien ikuspegia eskaintzen du eta, zehazki, azpiegiturarekin, zerbitzuekin eta ekipamendurekin, sarbidearekin, entitate horiek bisitatzen dituzten pertsona kopuruarekin, garatzen dituzten erakusketa eta jarduerekin eta inplikaturako giza baliabideekin lotutako gaien ikus-

2. Arestian adierazitako eragiketan oinarrituz Euskal Herrirako burutua.

pegia. Bestalde, informazio eta komunikazio teknologien erabilera oinarritutako azterketa berezia ere jasotzen du, informazio gizarreak esparru horretan duen eragina aztertzearen.

Metodologia eta informatika euskarriak Ministerioaren estatistikakoak bezalakoak dira. Kasu horretan, hedapena Kultura Sailaren web orriaren bitartez egiten da.

Emaitzen zabalkundea eta argitalpenean eta jakina, lurralde-ekalan desberdintasunak badituzte ere, eragiketa bien ezaugarriak oso antzekoak dira.

### **Adierazleen azterketa**

Hurrenez hurren, 49 eta 46 adierazle aztertu dira zehatz mehatz. Emaitzek museo eskaintzari dagokionez (ezaugarri orokorrak, eskuragarritasuna, azpiegitura, ekipamenduak, museo funtsak, erakusketak, argitalpenak, etab.) zein kalkulaturako bisitari kopuruetan bereziki islatutako eskaerari dagozkion alderdiak jasotzen dituzte, Autonomia Erkidego eta hirien arabera eta museo eta museo bildumen tipologiaren arabera sailkatuta.

Aipagarria da bi eragiketen arteko informazioaren antzekotasuna, nahiz eta Kultura Saileko estatistikari dagokionez, azpiegiturari (azalera, eraikina, berrikuntzak) eta antolatzen dituzten jardueri dagokiona gehiago zehazten den, eta kontratatutako zerbitzuak ere jasotzen dituen.

## **2.2.4. Ondarea**

### **Eragiketen azterketa**

Ondareari dagokionez, EAEko informazioa duen estatistika erreferentzia bakartzat identifikatu dena *Kultur intereseko ondasun gisa eta ondasun higigarrien inbentarioan inskribatutako datuen estatistika ustiapena* da. Kultura Ministerioarentzat egiten da eta *Kultur estatistiken urtekarian* argitaratzen da.

Estatistika horiek taulatan multzokatutako emaitzak dituzte eta aipaturako administrazio iturriak erabiltzen dituzte. Estatuko Ondare Historikoaren 16/1985 Legearen eta Legea partzialki garatzeko 111/1986 Errege Dekretuz Ondasun Higigarri eta Higiezinak inskribatzen diren erregistro bat da.

Duten kategoria juridikoaren arabera, Estatuko Ondare Historikoa osatzen duten elementuak dituzte oinarri.

- Kultur intereseko ondasunak (BIC), higigarri zein higiezinak izan daitezkeenak.



- BIC kategoria ez izan arren, inbentarioan jaso beharreko ondasunak dira, beren garrantzia berezia dela eta.

Estatistika hori *Kultur estatistiken urtekariaren* bidez eta 2002ko argitalpeneko *Espainiako kultura zifratan* izeneko Ministerioaren beste argitalpen baten bidez hedatzen da. Interneten aurkibidea eta adierazle nagusiak biltzen dituzten pdf formatuko bi artxibo daude eskuragarri.

Aipatutako erregistroak Autonomia Erkidegoek kudeatutakoak dira, gure kasuan, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, hain zuzen ere.

### **Adierazleen azterketa**

Kasu honetan, autonomien araberako informazioa eskaintzen digutenetik hiru adierazle aukeratu dira: kultur intereseko ondasuntzat inskribatutako ondasun higiezinak; kultur intereseko ondasuntzat inskribatutako ondasun higigarriak eta inbentario orokorreko ondasun higigarriak.

### **Azterketa kualitatiboak**

2005.eko otsailean Luberri comunic.action enpresak landutako *Euskal etnografia ondarearen inbentario bateranzko hurbilpena* izeneko azterketa, funtsean, euskal etnografia ondarearen errealitatearen azterketa bat da, inbentario bat prestatzeko ildoak proposatzeko egina.

Azken helburua etnografia ondarearen inbentario baten prestaketan jarraitu beharreko urratsak bideratzeko erreferenteak eskaintzea da.

### **Eduki nagusiak**

Kulturaren Euskal Planaren aurretiko ponentzia eta txostenak hartzen ditu abiapuntutzat, eta, horiei ondare horien dokumentazioa bermatu, ondarea zaindu eta hedatzea zein bere eraginkortasun praktikoa helburu duten Autonomia Erkidegoetako esparru juridiko berrien azterketa eransten die. Azkenik, bi Autonomia Erkidego aukeratu dira, etnografia ondarearen inbentario bat egiteko bi era desberdin, hain zuzen. Bi adibide horiek erreferentziatzat balio dezaketen beste bi kasurekin osatzen dira.

Proposamen nagusiak aurkezten ditu kapitulu batean. Laburbilduta, gaur egun, inbentarioa egiterakoan jarraitzen diren bi metodologiaren ezagutza bateratzea da helburua; Kultur Ondarearen Lurralde Planaren aurrerapena etnografia ondare higiezinaren inbentario bati ekiteko oinarritzat erabiltzea; Gipuzkoako

Foru Aldunditik edo museoetatik ondare higigarriari dagokionez egindako aha-  
leginak erabiltzea; Eusko Jaurlaritzatik eta beste hainbat entitate pribatutatik on-  
dare ez-materiala inbentarioan jasotzerakoan hurbilpenak kontuan hartzea;  
tradizioaren transmisoreek daukaten informazioa jasotzea. Ildo horretan, lanbide  
tradizionalen zerrenda bat jaso da. Bestalde, gaur egungo EAEko Kultur Ondare-  
rearen Legearen ez-nahikotasuna aipatzen da etnografia ondarea eraginkortasu-  
nez babestekoan, berez, ez baitu ez etnografia ondarearen aholkularitza  
kontseilurik ezta ondare ez-materiala babesteko irudi juridikorik ere sortzea au-  
rreikusten. Bestalde, etnografia ondarea bezalako ondasun erabilgarri bat man-  
tentzeko laguntzek planteatzen dituzten zailtasun edo kontraesanak ere aztertzen  
ditu, baita etnografia museoen egoera anitza ere.

Kulturaren Euskal Planaren aurretiko txostenei dagokienez, Euskal Et-  
nografia Zentro bat, Catalunyaoko ereduari jarraiki Behatoki bat, aurretiko  
Inbentario bat eta Euskal Antropologia Museo bat sortzeko proposamenak  
jasotzen ditu.

Azkenik gaur egun landa ondarean oinarritutako gizarte eta ekonomia ga-  
rapen ereduak aztertzeke dagoen beharra egiaztatzen du eta Euskadiko Muse-  
oen Lege berriak etnografia balioak dituzten guneei buruz egiten duen  
erreferentzia jasotzen du.

## III. SORKUNTZA ETA ADIERAZPEN ARTISTIKOEN AZPI-SISTEMA

### 3.1. INFORMAZIOAREN IKUSPEGI OROKORRA

Lau sektoreri buruzko informazioa eskaintzen duten lau iturri nagusi daukagu. Alde batetik, Kultura Ministerioa, *Kultur estatistiken urtekaria* eskaintzen diguna. Bertan, datu baseei buruzko estatistika ustiapenak jasotzen dira. Bestetik SGAE daukagu, *Arte eszenikoen, musika arteen eta ikus-entzunezkoen urtekarian* adierazle ugari jasotzen dituena. Biek estatuko informazioa dute eta bertatik EAERI buruzko datuak eskaintzen dituzten adierazleak atera dira. Azken finean, kulturari buruzko informazio orokorreko bi bilduma dira, eta, bertan, sorkuntzari lotutakoa laburbildu da.

Beste iturri nagusi bat Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila dugu, informazio kuantitatiboa jasotzen duten bi azterketa eskainiz: *Antzerki eta dantza azterketa* eta *Arte plastikoen eta ikus-entzunezkoena*. Une honetan, zuzeneko musikari buruzko beste ikerketa bat egiten ari da, azpi-sistema horri buruzko informazioa osatuko duena, hain zuzen ere.

Dantzari dagokionez, ikerketa kualitatibo bat prestatzen ari da, *EAEko dantzarako baliabideak baliatu, koordinatu eta sortzeko proposamenak egiteko azterketa* izenekoa. Hau ere Kulturaren Euskal Planaren esparruan txertatzen da.

Horiez gain, Sarea dugu, euskal antzokien sarea, sektoreko datu nagusiak biltzen dituen urteko estatistika bat argitaratzen duena, hain zuzen.

Informazioa sektoreen arabera egituratzerakoan zehaztaperen bat egin behar da, Kulturaren Euskal Planak sorkuntza eta adierazpen artistikoen azpi-sisteman

	SEKTOREA	ITURRIA	ERAGIKETAK ETA AZTERKETAK	
			Ohiko estatistika eragiketak	Beste hainbat eragiketa eta azterketa
SORKUNTZA	Antzerkia	Kultura Ministerioa	Baliabide eszenikoen datu basearen estatistika ustiapena	–
		SGAE	Arte eszenikoen, musika arteen eta ikus-entzunezkoen urtekaria	–
		Sarea-Euskal Antzokien Sarea	Antzerki sektorearen estatistikak	–
		Kulturaren Euskal Planeko azterketak	–	EAEko dantzarako baliabideak baliatu, koordinatu eta sortzeko proposamenak egiteko azterketa
	Dantza	SGAE	Arte eszenikoen, musika arteen eta ikus-entzunezkoen urtekaria	–
		Kulturaren Euskal Planeko azterketak	–	EAEko dantzarako baliabideak baliatu, koordinatu eta sortzeko proposamenak egiteko azterketa
	Dantza eta musika	Kultura Ministerioa	Musika baliabideei eta dantzari buruzko datu baseen estatistika ustiapena	–
	Musika	SGAE	Arte eszenikoen, musika arteen eta ikus-entzunezkoen urtekaria	–
Arte plastikoak	Kulturaren Euskal Planeko azterketak	–	EAEko arte plastiko eta ikusizkoei buruzko azterketa 2005	

zapi multzo handitan, alegia, antzerkia, dantza, musika, literatura, arte plastikoak, ahozko tradizioa eta artisautza, egiten duen bereizketa ez dator bat Ministerioa edo SGAE bezalako iturriek egindako eraketekin. Kasu horietan, arte eszenikoetan antzerkia, dantza edota musikari buruzko informazioak bil-tzen dituzte. Adibide gisa, azpiegitura edo baliabide eszenikoei buruzko informazioa dugu, hiru sektoreetarako balio duena, hain zuzen.

Ohar hori eginda, honako hau zehaztu behar da, alegia, zehaztutako hainbat adierazleren azterketan sorkuntzaren azpi-sisteman zein kultur industriarenean

sar litezkeen informazioak aurki daitezkeela. Esate baterako, *SGAEren urtekarian, arte eszenikoen, musika arteen eta ikus-entzunezkoen urtekaria* izenekoan, azpi-sistema bati zein besteari buruzko informazioa aurki dezakegu.

Artisautza sektoreari buruzko informazioa kultur industrien atalean jaso da, aztertu den azterketaren ikuspegia kontuan hartuta, sortzailea baino gehiago ekoizlea baita.

SGAE da informazio kopuru handiena duen entitatea, eta, berez, Urtekaria aurkezterakoan diotenez, “Espainiako kultur sektoreko estatistika erreferentzia” dira. Esate baterako, argitaratzen duten Urtekarian aukeratutako 117 adierazletatik 76 arte eszeniko eta musika arteei dagozkie. Zifra hori EAEko informazioari lotutakoa da.

Azkenik, bereziki EAEn egindako eta Kultura Sailak bultzatutako azterketak ere aztertzen dira, eta bertan aldagai eta adierazle nagusiak laburbildu dira. Antzerkia, dantza eta arte plastiko eta ikusizkoen sektoreak bezalakoetan eragiten dute. Kasu honetan lurralde ikuspegitik eta arte plastikoak bezalako beste hainbat iturritan dauden hutsuneen ikuspegitik informazioa osatzeko zein dantzarako baliabideak ahalik eta onenak izan daitezen proposamenak egiteko balio dute.

Bukatzeko Literatura eta Bertsolaritza aipatu behar dira. Azken horri dago-kionez, bada Jaurlearitza Lehendakariak bere soziometroetako batean egindako aipamen bat. Zeharkako lerro batean jaso da kultur ohituren eta kontsumoaren gaiari lotuta baitago. Antolatutako elkarteak dituzten bi sektoreak dira eta informazio ugari daukate.

## **3.2. SEKTOREEN ARABERAKO AZTERKETA**

### **3.2.1. Antzerkia**

#### **Eragiketen azterketa**

Hasteko, azpimarratu behar da azpi-sistema honetako sektoreen artean informazio iturrien kopururik handiena duena dela. Hiru informazio iturri nagusiek dute antzerkiari buruzko informazioa, Kultura Ministerioak, SGAEk eta Eusko Jaurlearitza Kultura Sailak. Horiei Sarea gehitzen zaie, euskal antzokien sarea, alegia.

Lehenengo kasuan, profesionalek eta kudeatzaileek arte eszenikoei buruzko azpiegitura baliabideak kokatzeko erabilgarria den *Kultur estatistiken*

*urtekariaren* kapituluetakoa batean jasotako *Arte eszenikoen baliabideei buruzko datu baseen estatistika* izeneko eragiketa da. Administrazio iturri bat erabiltzen duen estatistika da eta informazioa zuzenean jasotzen dela zehazten dute. Gaur egun ez dago aipatutako datu basean bere jardueraren alta edo baja erregistratzeko derrigortasuna ezartzen duen araudirik, eta, horren ondorioz, ez dago ikertutako esparruaren estaldurari buruzko bermerik. Datu basearen erregistroak etengabe eta zorrotz eguneratzen dira bi urtean behin. Datuak Gida-eroldaren jardueretako bakoitzerako pertsonalizatuta dagoen galdetegi normalizatu baten bidez jasotzen dira eta Erroldako unitate bakoitzaren arduradunei postaz edo posta elektronikoz bidaltzen zaie egiaztatu eta osa dezaten.

Ministerioak egindako estatistika eragiketetako beste batek, *Musika eta dantza baliabideei buruzko datu baseen estatistika ustiapena* izenekoak, titulu hori izanda ere, ondorengo atalean zehaztuko diren antzerkiari buruzko adierazleak jasotzen ditu.

2006ko SGAEren *Arte eszenikoen, musika arteen eta ikus-entzunezkoen urtekaria* Estatuko kultur jardueren eskaintza ezagutzeko derrigorrezko baliabidea da. Urtean zehar izandako ekitaldi guztien eta bakoitzaren erregistro prozesu zehatz batetik eskuratzen dira datuak. Bilakaerak ikusi eta informazio alderagarri eta eguneratua edukitzeko aukera ematen du. Berez, Ministerioaren Urtekariak arte eszenikoak bezalako kapitulu batzuetan informazio iturritzat erabiltzen dute. 1999an hasi zen eta bere tituluak dioenez, urtero argitaratzen da.

Bi iturri horiek Internet daude eskuragarri, kulturaren profesional eta iker-tzaile guztientzat zein, oro har, publikoarentzat.

Sarea, urteko estatistika bat argitaratzen duen euskal antzoki sarea, dugu beste informazio iturri bat. Txosten hau egiteko, 2005eko informazioa berrikusi da. Gaur egun, EAEko titulartasun publikoko antzoki gehienak sarean daude, hiru Lurralde Historikoetan banatutako 42, hain zuzen ere. Estatistika txostenean datu orokorrak zein lurralde, areto eta taldeen arabera aztertzen dira, emanaldi kopuru eta kontratazio gastuan oinarrituta. Zatiketa hori azterketaren hasierari dagokio, sailkapen irizpidez gain, talde bakoitzari dagozkion aretoak ere zehaztuz. Metodologiari dagokionez, sareko partaide diren antzokietan inkesta bat egiten dute, galdetegi postaz bidali eta telefono bidezko jarraipena eginez. Erabiltzen dituzten euskarriak Access eta Excel

datu baseak dira. Datuak inprimatutako argitalpen baten bidez zabaltzen dituzte eta ez daude Interneten eskuragarri. Ondorengo urteko martxo edo apiril aldean ezagutarazten dituzte.

Azkenik, Kultura Sailak eskatutako eta Xabide, S. Coop- eta Test-media egiten ari diren *Antzerki eta dantza azterketak* antzerki konpainia, banatzaile eta programatzaileei buruzko informazioa jasotzen du.

### **Adierazleen azterketa**

*Arte eszenikoen baliaibideei buruzko datu baseen estatistikatik* Autonomia Erkidegoen arabera bereizitako bi adierazleak aukeratu dira:

- Titulartasunaren arabera antzerkiko eszena gune egonkorak 2004ko titulartasun publiko zein pribatuko antzerkiko eszena gune egonkorren kopurua erakusten du.
- Edukieraren arabera antzerkiko eszena gune egonkorak. Edukiera maila bakoitzaren arabera sailkatzen ditu (50 lagun baino gutxiago eta 1000 pertsona baino gehiagoko tartean, 6 maila).

Eszena guneak honela definitzen dituzte: Izaera egonkorra duten guneak dira, erreferentziatzko urtean zehar jardunean izan ala ez, eta maila handi batean, antzerki, musika eta dantza emanaldietarako balio anitza dutenak.

Ministerioaren bigarren eragiketarik, *Musika baliaibide eta dantzari buruzko datu baseen estatistika* ustiapenetik, alegia, azpiegitura edo eszena gune egonkorrei, antzerki konpainien kopuruari edo antzerki jaialdien kopuruari dagozkion adierazle aukeratu dira, horiek guztiak Autonomia Erkidegoen arabera berezita.

2006ko *Arte eszenikoen, musika arteen eta ikus-entzunezkoen SGA* Eren *urtekariak* antzerki, dantza eta musikari dagozkion adierazle komunak ditu, eta jardueraren, ikus-entzuleen, ekipamenduaren eta diru bilketaren berri ematen dute. Autonomia Erkidegoen arabera datuak eskaintzen dituzte.

Bestalde, antzerki sektorearen adierazle bereziak ere kontuan hartu dira, besteak beste:

- Antzerki emanaldien bilakaera
- Antzokietako diru bilketaren bilakaera

Hiru kasuetan 2001-2005 bitarteko datuak aurkezten dira.

*Antzerki eta dantza azterketaren* adierazleen zerrendak hainbat aldagai aztertzen ditu, besteak beste, jarduera, ikusleak, enplegua, diru sarrerak eta kostuak. Euskarazko antzerkirako ere biltzen dute informazio hori.

Erabiltzen dituzten sailkatzeko aldagaiak honako hauek dira: taldea, urtea, sektorea, hizkuntza, xede- publikoa, tipologia (antzerkia-txotxongiloa), antzez- teko gunea, konpainiaren jatorria eta lurralde historikoa. 17 adierazle eta aldagai aukeratu dira.

Multzoa ixteko Sareak *Euskal Antzoki Sarea. 2005 datu estatistikoak* titulupean aurkeztutako informazioa laburbiltzen da. Kontuan hartzen diren aldagaiak emanaldiak, programazioa, ikusleak, edukiera, okupazio maila, ekonomia baliabideak eta antzezteko maiztasuna dira. Honela sailkatzen dituzte, alegia, lurralde historikoen, aretoen, Sarearen taldeen (A, B, C), tipologiaren (antzerkia, dantza, musika, lirika), xede- publikoaren, hizkuntzaren, konpainien jatorriaren eta egile edota zuzendarien arabera. Bestalde, 1997 eta 2005 bitarteko adierazle nagusien bilakaera jasotzen duten taula batzuk ere eskaintzen dira. Desagregazio ugari dituzten sei adierazle aukeratu dira.

### 3.2.2. Dantza

#### Eragiketen azterketa

Antzerkiari dagokionez egindako berberak dira. Beraz, ez ditugu berriro bere ezaugarri nagusiak zehaztuko:

- *Arte eszenikoen baliabideei buruzko datu baseen estatistika*
- *Musika baliabide eta dantzari buruzko datu baseen estatistika ustiapena*
- *2006ko Arte eszenikoen, musika arteen eta ikus-entzunezkoen SGA Eren urtekaria*
- *Antzerki eta dantza azterketa*
- *Euskal Antzoki Sarea. 2005 datu estatistikoak*

#### Adierazleen azterketa

Kultura Ministerioak egindako lehenengo bi eragiketetan, jasotako adierazleak azpiegiturarenak dira, espazio eszenikoei buruzkoak.

Euskal Autonomia Erkidegoko informazioa duten dantzari buruzko adierazle bereziak *SGA Eren urtekarian* jasota daude eta, antzerkiaren atalean bezala, emanaldiak, ikusleak eta diru bilketari buruzkoak dira.

Kultura Sailak bultzatutako *Antzerki eta dantza azterketa* ikerketak aztertzen dituen dantza adierazle bereziek honako hauen berri ematen dute:

- EAEn programatutako dantza emanaldiak
- EAEn programatutako dantza ikuskizunak



- Dantza emanaldietako ikusleak
- Dantza emanaldietako leihatilako diru sarrerak
- Dantza emanaldietako kontratazio kostuak

Kasu honetan datuak lurralde historikoen arabera eskaintzen dira.

Azkenik, Sareak emanaldi mota eta konpainien jatorriari buruzko informazioa ere eskaintzen du, ikusleak, etab. dantzarako bereziak direnak.

### **Azterketa kualitatiboak**

*EAEko dantzarako probetxamendu, koordinazio eta baliabide sorkuntzako proposamenak egiteko azterketa* Xabide S. Coop. egiten ari den proiektua da.

Dantzaren prestakuntza, sorkuntza, ekoizpen eta hedapen beharren azterketa eta diagnostiko zehatza du abiapuntu, balio kateari jarraiki, eta, baliabideen koordinazio eta probetxamendurako jardun ereduaren proposamen batez zein proposamen horien ekonomi azterketaz osatzen da. Horretarako, azterketa-xedeari buruzko informazio iturri desberdinak aztertzen dira eta landa azterketa batekin osatzen dira, hain zuzen ere, elkarrizketak eta prestakuntzako akademia eta eskoletako ikerketa bat eginez. Jardun ereduak proposatzeko hausnarketa estrategikoko prozesu bat eta erreferentziazko ereduaren *benchmarking* bat jarraitu dira. Balio katearen fase desberdinak dantza estiloen aniztasuna kontuan hartuz aztertzen dira, alde batetik, dantza ez-tradizionala sailkatuz (klasikoa, neoklasikoa, garaikidea eta beste batzuk), eta, bestetik, dantza tradizionala, hau da, Euskal Herriko dantza folklorikoa.

### **Eduki nagusiak**

Ondorio gisa ageri diren ideia nagusietako batzuk besterik ez dira jaso:

- Dantza ez-tradizionalak egitura berriak behar ditu, prestakuntza arloan zein sorkuntza eta ekoizpen arloan ere.
- Dantza tradizionalari profesionaltasun handiagoa eman behar zaio, dantza tradizionalako irakasleentzat curriculum programa bat sortuz. Era berean, borondatez lanean ari diren talde tradizionalak mantenduz eta babestuz, egitura profesionalagoak sortu behar dira.
- Zabalkundeari dagokionez, dantza tradizionalan zein ez-tradizionalan ere, hobetu beharra dago, telebista eta prentsako hedapen iraunkorragoa bultzatuz.

- Dantza programatzeko arrisku-espíritu falta dago eta dantza profesionalek egindako sormen lanetarako babes falta EAEko programatzaile gehienek aldetik. Ez dago, bestalde, dantzarekiko sentiberatasun programarik, ohi-turak sortu eta dantza neurri handiagoan gizartean zabaltzearen.
- Erakunde publikoen diru laguntzen programak funtsean zabalkundearen eta sorkuntza eta ekoizpenean oinarritzen dira, eta eskaintzen diren prestakuntzako laguntzak ez dira soilik dantzarako, baizik eta arte eszeniko eta musika arteetarako. Hala ere, dauden laguntzak eskasak dira.

Proposatzen dituzten jardun ildoak aztertutako erreferente desberdinetatik balia daitezkeen alderdiak kontuan hartzen dituzte eta hiru egiturazko ardatzen inguruan antolatzen dira: dantza ez-tradizionala, tradizionala eta biekin zeri-kusia duten beste hainbat ildo. Azkenean etorkizuneko proiektuen garapen maila desberdinen zein erakunde eta eragile desberdinen inplikazioaren baitako balizko hiru eredu aurkezten dituzte.

### 3.2.3. Musika

#### Eragiketen azterketa

Musikari dagokionez, informazio iturri nagusiak Kultura Ministerioa eta SGAE dira, nagusiki.

Berriro ere aipa daiteke Sareak jasotzen duen informazioaren barruan (an-tzerkiari dagokion atalean azaldu da), ikuskizunaren tipologia bereizten dela , musika eta lirika bereizita.

Aipatu beharra dago, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak *EAEko zuzeneko musikari buruzko azterketa* bat eskatua duela, txosten hau prestatzen jardun dugun unean, Kualitate Lan Taldea egiten ari dena, hain zuzen.

#### Adierazleen azterketa

Kultura Ministerioak *Musika baliabide eta dantzari buruzko datu baseen estatistika ustiapenean* jasotako EAEko informazioa duten musika sektoreko adierazle bereziak honako hauek dira:

- Musika eta dantzarako espazio eszenikoak (Autonomia Erkidegoen araberako, 2003-2004 aldian) eta titulartasuna.
- Titulartasunaren araberako 2004ko kontzertu aretoak
- Interpretazioan aritzen diren tipologiaren araberako musika entitateak
- Tipologiaren araberako lehiaketa, jaialdi eta beste hainbat musika jarduerak

*SGAEren urtekarian* guztira sektore honetako 66 adierazle berezi aukeratu dira. Bestalde, dokumentu honetan argitaratzen dutena baino informazio gehiago dute, beraz, sektore honetan eta beste hainbatetan derrigorrezko informazio iturri dugu.

Emanaldi, ikusle, diru bilketa edota azpiegiturei buruzko antzerki eta dantzarako adierazle komunez gain, adierazle ugari ditu, musika genero desberdinen arabera multzokatuta:

- Genero lirikoa
- Musika klasikoa
- Musika sinfonikoa
- Ganbera musika eta bakarlariak
- Musika korala
- Banda musika
- Herri musika

Adierazle zerrenda zabal horretan areto, ikusle kopuru eta diru bilketa, kontzertu kopuru, edota adierazle horien bilakaerari buruzko datuak aurkezten dituzte.

### **3.2.4. Arte plastikoak**

#### **Eragiketen azterketa**

Sektore honi buruzko estatistika informazioaren iturri nagusia Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak bultzatu eta Deustuko Unibertsitateko Aisialdiaren Institutuak egindako *Euskal Autonomia Erkidegoko arte plastikoen eta ikusizkoen azterketa* da. Arte jarduera zein euskal artisten sustapena eta jasotzen duten erakundeetatik jasotzen dituzten laguntzak aztertzen ditu. Arte jarduera 2002, 2003 eta 2004. urteetan EAEko hiriburuetan kokatu eta arte garaikideen obren erakusketan adituak diren guneen bidez aztertzen da (museoak, galeriak erakusketa aretoak eta ekoizpenerako eta sorkuntzarako eremuak). Horretarako, inkesta bat egin da arte plastiko eta ikusizkoen sektoreko partaide gisa identifikatutako eragile eta ekipamendu guztiei galdetegi bat zuzenduz. Auzonet galdetegiaren protokoloa erreferente eta abiapuntutzat hartzen duen tresna bat da, berariaz azterketa honetarako sortutakoa, hain zuzen. Unibertsoa osatzen duten 18 galerietatik, 15ek erantzun dute galdetegia; 11 aretoetatik 10ek; aukeratutako museo guztiek hartu dute parte azterketan eta ekoizpen eta sorkuntzarako 5 espazioetatik 4rek.

Erakundeen esku hartzeen gaia Eusko Jaurlaritzak eta dagozkion hiru Aldundiek 1984 eta 2004 bitartean eskaintzen dituztenetan oinarritzen da. Teknika kuantitatiboak (arte jarduera aztertzeke) eta kualitatiboak (diru laguntzak aztertzeke eta diagnostikorako) konbinatzen dira.

Kultura Ministerioak, *Kulturaren zifrak Espainian, 2002* izeneko argitalpean, arte plastikoei buruzko kapitulu bat jasotzen zuen, eta, bertan, Autonomia Erkidegoei buruzko informazioa duten azpiegiturari buruzko bi adierazle azaltzen dira. Harrigarria da 2005eko *Kultur estatistiken urtekarian* arte plastikoei buruzko informaziorik ez azaltzea.

### Adierazleen azterketa

Tipologia desberdinetarako kontuan hartzen diren aldagaiak honako hauek dira:

- **Arte galeriak:** erakusketa jarduera, komisarioak, katalogoen argitalpena, artistak eskusiban, obren ekoizpena, arte feriatako presentzia, funts eta erosketak, aurrekontua eta finantzaketa. 33 adierazletan banakatuta daude.

- **Erakusketa aretoak:** erakusketa jarduera, komisarioak, katalogoen argitalpena, funts eta erosketak, aurrekontua eta finantzaketa. 37 adierazletan banakatuta daude.

- **Museoak:** erakusketa aretoak, erakusketa jarduera, komisarioak, katalogoen argitalpena, funts eta erosketak, aurrekontua eta finantzaketa. Adierazle kopuru handiena duen tipologia da, 57, hain zuzen.

- **Sorkuntza eta ekoizpenerako guneak:** erakusketa jarduera, ekoizpena, artistak egoitzetan, arte ferietako presentzia, funts eta erosketak eta aurrekontua eta finantzaketa aztertzen dira. Informazioa 30 adierazletan jasotzen da.

### Azterketa kualitatiboak

Aipatutako *Euskal Autonomia Erkidegoko arte plastiko eta ikusizkoei buruzko azterketa*. *EAEko arte plastiko eta ikusizkoen sektoreko jardueraren eta Euskal Erakundeen esku hartzeen bilakaera* izeneko azterketa Deustuko Unibertsitateak egindako ikerketa deskribatzailea da.

Hirugarren kapituluak gai kritikoen diagnostikoa jasotzen du eta hortik abiatuta sektorerako etorkizuneko ildoak ezartzen dira, ardatz estrategikoen bitartez egituratuta. Hiru iturritatik abiatuta prestatu da: eragile nagusien jardueraren azterketa (I kapitulua); Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek, azken hogeita hamabost urtetan hurrenez hurren sortutako araudiaren irakurketa (II kapitulua), eta, hirugarrenik, elkarrizketa sakonak, horien bitartez, sekto-

reko eragile eta pertsona ospetsuen iritzi eta banan-banako ikuspegiak protagonista bihurtuz.

### **Eduki nagusiak**

Diagnostikoa hiru ikuspegitatik egiten da eta, betiere, eremu bakoitzeko indar guneak eta ahul guneak eskainiz:

1. Ikuspegi orokorrak sektorearen iragana, oraina eta etorkizuna aztertzen ditu; Kulturaren Euskal Planak sektoreari buruz egindako ekarpenak; eta internazionalizazioaren aurrean, kultur desertifikazioa.
2. Balio katean oinarrituta, prestakuntza / ikerkuntza, sorkuntza / ekoizpena, banaketa / erakusketa, eta kontsumoa aztertzen dira.
3. Esku-hartze publikoari dagokionez, ildo orokorrak, aurrekontu zuzkidura, plangintza eta koordinazioa, eskumenak, dirulaguntza, beka eta laguntzak eta jarduera eta galeria sarearekiko babesak aztertzen ditu.

Jarraian ikerketaren ardatz estrategiko eta helburuak zehazten dira:

#### **Ardatz estrategikoak eta helburuak:**

**1. Ardatz estrategikoa:** Arte plastikoaren sektorean Euskal Erakundearen esku-hartzea optimizatzen duen eskumen egitura bat sendotzea.

- Arte plastikoaren sektorea maila guztietan bultzatzeko behar den eskumen egitura definitzea.
- Erakundearen ekintza planifikatzea.
- Erakundearen eta arte plastiko eta ikusizkoaren sektorean lanean ari diren eragile nagusien arteko koordinazio eta elkarrizketa bultzatzen duen komunikazio politika bat diseinatzea.

**2. Ardatz estrategikoa:** Arteen balio katearen fase guztiei erantzuten dien hausnartu eta planifikatutako esku-hartze bat sortzea.

- Arte plastikoaren sozializazioa bultzatzen duten jardunak sortzea.
- Oinarriak diseinatzeko eta dirulaguntza, beka eta diru laguntzak emateko irizpide komunak ezartzea.
- Bildumazaletasun pribatua bultzatzea.

**3. Ardatz estrategikoa:** Erakundeek euskal artista eta sortzaileak babesteko politika koordinatua diseinatzea.

- Artistak profesional bihurtzeko behar diren baldintzak sortzea.
- Euskal artistak nazioartekotzeko babeste ematea.

Ezarritako helburuak gauzatzeko, 50 jardun lerro ezarri dira guztira.

## IV. KULTUR INDUSTRIEN AZPI-SISTEMA

### 4.1. INFORMAZIOAREN IKUSPEGI OROKORRA

Hurrengo taulan, kultur industriren azpi-sistema osatzen duten bost sektoreei buruzko informazioa eskaintzen duten iturri eta eragiketa nagusiak laburbiltzen dira. Artisautza, artisau industriatzat ulertuta, argitalpen industria, fonografia industria, ikus-entzunezkoen industria eta multimedia sektorea eta kultura digitala, alegia.

	SEKTOREA	ITURRIA	ESTADISTIKA ERAGIKETA	
			Ohiko estatistika eragiketak	Beste eragiketa batzuk
KULTUR INDUSTRIAK	Artisau industria	Kulturaren Euskal Planaren azterketak	–	EAEko artisau industriei buruzko azterketa. 2005
	Argitalpen industria	Kultura Ministerioa	ISBN duten Espainiako liburuen argitalpen estatistika	–
		Kulturaren Euskal Planaren azterketak	–	Euskarazko argitalpen ekoizpenari buruzko azterketa. 2006
		Euskadiko Editoreen Elkarteak	Euskadiko argitalpenari buruzko VIII. txostena. Barne merkataritza. 2004	–
	Fonografia industria	Kultura Ministerioa	ISMN duen Espainiako musika argitalpen estatistika	–
		Kulturaren Euskal Planaren azterketak	–	EAEko fonografia sektorearen egoerari buruzko azterketa. 2005

	SEKTOREA	ITURRIA	ESTADISTIKA ERAGIKETA	
			Ohiko estatistika eragiketaks	Beste eragiketa batzuk
KULTUR INDUSTRIAK	Ikus-entzunezkoen industria	Kultura Ministerioa	Zinematografia estatistika: ekoizpena, banaketa eta sustapena	–
		SGAE	Arte eszenikoen, musika arteen eta ikus-entzunezkoen urtekaria	–
	Multimedia eta kultura digitalal	Euskal Ekonomia eta Gizarte Kontseilua	Memoria sozio-ekonomikoa 2004.	–
		SGAE	Arte eszenikoen, musika arteen eta ikus-entzunezkoen urtekaria	–

Informazio iturriei dagokienez, sorkuntza eta arte adierazpenaren azpi-sistemarekin pareka daitezke, lehen mailako informazio iturrietako hiru bat baitatuz: Kultura Ministerioa, SGAE eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. Horiei Euskadiko Editoreen Elkarte eta Ekonomia eta Gizarte Kontseilua gehitu behar zaizkie, nahiz eta, kasu horretan, bigarren mailako iturriak erabiltzen diren.

Kultura Ministerioa eta SGAE eta Euskadiko Elkarte bezalako iturrien ohiko estatistika eragiketen eta Kultura Sailak sustatutako azterketa puntualen arteko lehenengo desberdintasun bat ikusten da. Kultura Ministerioak eskaintzen duen informazioa administrazio oinarria duten hiru eragiketatan laburbiltzen da, alegia:

- *ISBN duten liburuen espainiako argitalpen estatistika*
- *ISMN duen musikaren espainiako argitalpen estatistika*
- *Zinematografia estatistika: ekoizpena, banaketa eta sustapena*

SGAEk *Arte eszenikoen, musika arteen eta ikus-entzunezkoen urtekarian* argitaratzen ditu bere datuak. Sorkuntzari lotutako edukiak txosten honetako beste kapitulu batean aurkeztu dira, hain zuzen ere, arte eszenikoei eta musika arteei buruzko informazioa. Hala ere, industria ikuspegi horri dagozkion ikus-entzunezkoei lotutako informazioak ere jasotzen ditu. Zehaztu behar da fonografia industriaren edukiak aztertu direla baina Urtekariak ez duela kapitulu horretan EAERI buruzko informaziorik jasotzen.

EAEko Editoreen Elkarteak argitalpen sektorea aztertu eta EAERI buruzko informazio berezia eskaintzen du *Euskadiko argitalpenari buruzko VIII. txostena. 2004ko barne merkataritza* izeneko txostenean.

Kultur industri horien azterketarako derrigorrezko beste informazio iturria Kulturaren Euskal Kontseiluak sustatutako azterketak dira, besteak beste:

- *EAEko artisau industriei buruzko azterketa. 2005*
- *Euskarazko argitalpen ekoizpenari buruzko azterketa. 2006*
- *EAEko fonografia sektorearen egoerari buruzko azterketa. 2005*

Zehaztu behar da azterketa horiek jasotzen dituzten eragiketak inkestak direla, Ministerioak edo SGAEk eginikoak ez bezala, azken hauek erregistro desberdinetan oinarritutako estatistikak baitira.

*Euskarazko argitalpen ekoizpenari buruzko azterketari* dagokionez, estatistika informaziorik eskaintzen ez badu ere, interesgarri deritzogu, kapitulu honetan aipatzeari. Bai egiten den adierazle aukeragatik, bai etorkizuneko eragiketa baterako oinarriak ezartzen dituelako, horretarako galdetegi bat jasoz.

Azkenik, EAEko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak argitaratzen dituen *Memoria sozio-ekonomikoak* informazio eta komunikazio teknologiei buruzko edukiak jasotzen ditu, kultura digitalari buruzko informazioa eskainiz eta SGAEk aztertutakoa osatuz.

Datu guztiak 2004. urtekoak dira, beraz, behar bezain eguneratutzat jotzen dira.

## 4.2. SEKTOREEN ARABERAKO AZTERKETA

### 4.2.1. Artisautza Industriak

#### Eragiketen azterketa

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak sustatu eta Ikertalde Grupo Consultorek landutako *EAEko artisautza industriei buruzko azterketaren* helburu nagusia sektorearen ikuspegi hirukoitza aurkeztea da: artisautzaren jardueraren ikuspegi orokorra, sektoreko enpresaren profilaren azterketa eta sintesi diagnosi bat eta etorkizuneko jardun plan baterako oinarriak prestatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko artisautza sektoreari buruzko inkesta bat jasotzen du, praktika onen kasuen azterketa batez osatua, 23 praktiketakoena, zehazki. Informazioa zuzeneko elkarrizketa pertsonalen bitartez jasoa da eta



eskaintzen diren datuak eroldakoak dira (277 artisau). Interesgarria da artisautza enpresen katalogo bat sortu zela aipatzea.

Azterketak sektorea etengabe behatzeko metodologia kontsiderazio batzuk proposatzen ditu eranskinean, besteak beste:

- Aldizkako izaera (bi urtean behingo maiztasuna eta 150 pertsona inguruz osatutako lagina)
- Jarraipenerako oinarrizko edukiak (identifikazio datuak eta forma juridikoa; establezimenduaren ezaugarriak; jardueraren titularra; enplegua; merkaturatzearen ezaugarriak; kudeaketako ekipamendu teknologikoa; etorkizuneko adierazleak; asoziazionismoa)

### **Adierazleen azterketa**

Hamahiru adierazle aukeratu dira eta honako aldagai hauei buruzko informazioa ematen dute: enplegua, produktuak, ekipamendua/instalazioak, merkaturatzearen ezaugarriak, kudeaketako ekipamendu teknologikoa, prestakuntza beharrak, etorkizuneko ikuspegiak, asoziazionismoa/enpresa arteko harremanak, forma juridikoa eta titulartasuna.

Jarduera, lurralde historiko, tamaina, lanaldi mota, lan harreman, sexu, adin, ikasketa maila, familia tradizio eta neurriaren arabera sailkatzen dute informazioa.

Interesgarria da zehaztea balorazio izaera duten adierazleak jasotzen direla, esate baterako, asebetetze maila edota instalazioen balorazio pertsonala.

### **Azterketa kualitatiboak**

*EAEko Artisautza industriei buruzko azterketaren* emaitza txostena bereizitako hiru zati edo informazio multzoz egituratuta dago:

Horietako lehenak, artisautzaren jardueraren kokapen orokorrak, hasiera batean artisautzaren kontzeptua sakontzen du, kultur eta ekoizpen dimentsio arteko ekonomia jarduera zein lurraldean sustraitzeko elementua den aldetik. Jasotako oharretatik eta proposatutako ikuspegitik abiatuta, sektorea estatua-ren barruan arautzeko ikuspegia garatzen du, EAEn kasuari bereziki errepertuz.

Bigarrenak, –sektoreko enpresa profilak– zifra nagusiak kokatzen ditu eta hainbat adierazleren bidez bere enpresa eta enpleguen ezaugarriak zehazten ditu. Horrela itxuratutako sektorearen testuingurutik abiatuta, mikroenpresa izaeradun erretratu lehiakorra sakontzen du, bere balio katearen hainbat alder-

diri erreparatuz, antolakuntza eta kudeaketatik ekoizpen instalazioetara igaroz, diseinu eta merkaturatzea ere aipatuz.

Hirugarren eta azken multzoa sintesi diagnostikoaren aurkezpenerako eta etorkizuneko jardun plan baterako oinarriak –proposamenak– ezartzeko da.

### **Eduki nagusiak**

Labur-labur alderdi kualitatiboak aipatuko ditugu.

**AMIA diagnostikoak** etorkizunerako sektorearen oinarritzko orientazio elementuak planteatzeko aukera ematen du, ondorengo multzo hauetan multzokatuta: artisautzaren gizarte testuingurua, eskaera gisako enpresa-merkatua binomioa, artisautza-lurraldea bikotea eta berekin dakartzan aukerak, prestakuntza eskaintza eta artisautza enpresa.

Azkenik ekintza plan bat egituratzeko oinarri gisa, azterketak Artisautzaren erakunde arteko foroa, hausnarketa eta ekintzarako gune gisako elkargune publiko eta pribatua sortzea proposatzen du:

- Hausnarketatik: Artisautza mahaia (Aldaketarako oinarritzko hausnarketa agenda). Oinarritzko ideien mapa bat proposatzen da, lau ardatzetan egituratuta:
  - ♦ Sektorearen antolamendua: arautzeko esparruaren sakontzea
  - ♦ Enpresa lehiakortasuna eta merkatuak
  - ♦ Beste hainbat sektore eta esparru profesionalekiko lankidetzak
  - ♦ Kolektibo gisako kohesioa eta kontzientzia hartzea
- Ekintzatik: Euskal Artisautzaren kontzeptuaren inguruan “enpresa kolektibo” gisa lan egingo duen Batzorde dinamizatzaile edo proiektuen faktoria, bere oinarritzko proiektua *Euskal artisautzaren labela eta lehia hobekuntzako ziurtagiri edo programa* bat lortzea izango du.

### **4.2.2. Argitalpen industria**

Garrantzitsua da estatu mailan hainbat konfederaziok eta sektoreetako federaziok sortzen duten informazio ugaria azpimarratzea. Berez, CEGAL (Liburu Saltzaileen Espainiako Konfederazioak) Espainiako Liburugintzaren Behatoki bat du. Hainbat azterketa eta ikerketa egin ditu, besteak beste:

- *Espainiako liburutegiaren kanalaren bidezko merkaturatzeari buruzko Delphi azterketa.*
- *Espainiako liburudenden mapa .*
- *Espainiako liburudenden estatistika eta kudeaketako adierazle sistema. 2000.*

Sektoreari buruzko informazioa sortzen duten intereseko beste hainbat entitate honako hauek dira, alegia, FEDECALI (Liburuen Ganberen Espainiako Federazioa) eta FANDE (Argitalpenen Banatzaileen Estatuko Elkar-teen Federazioa). Lehenengoak *Liburuen kanpo merkataritzaren eskuliburua* argitaratzen du eta bigarrenak hainbat azterketa egin ditu, besteak beste:

- *Liburuen banaketaren eta aldizkako argitalpenen sektoreari buruzko profil azterketa*
- *AMIA azterketa bati buruzko txostena*

Daukaten informazioak ez du estatistika izaerarik eta ez da EAEn oinarritzen, baina etorkizunean antzeko azterketarik eginez gero, kontuan hartu beharreko informazio iturriak dira.

### **Eragiketen azterketa**

Hauxe da informazio ugari eta eguneratua duen sektoreetako bat. Hiru eragiketa aztertu dira:

- *Euskadiko argitalpenari buruzko VIII. txostena. Barne merkataritza. 2004*
- *ISBN duten liburuen espainiako argitalpenari buruzko estatistika ustiapena*
- *Euskarazko argitalpen ekoizpenari buruzko azterketa*

Lehenengoa barne merkatuan Euskadiko argitalpen enpresen fakturazioari buruzko azterketa da eta liburuen eskaintza eta bere merkaturatzea ezagutzea du helburu, orokorrean zein euskarazko argitalpenari dagokionez. Azterketa esparrua 2004an barne merkatuan argitalpen jarduera duten Euskadiko argitaletxe pribatuak dira, hain zuzen ere, elkartutako 32 argitaletxe eta elkartu gabeko 12. Informazioa inkesta baten bidez lortzen da eta datuak urtero eguneratzen dira, bilakaerak ikusteko aukera emanez.

*Espainiako ISBN duten liburuen argitalpenaren estatistika ustiapena* Espainiako ISBN fitxategia direktoriotzat erabiltzen duen administrazio ikerketa bat da. Azterketako unitatea bertan erregistratutako liburuen argitalpena da, ISBNk identifikatuta. Espainiako agente editoreek egindako eta ISBN zenbakia jasotako argitalpenak inskribatzeko erregistroa da. Egoeraren arabera eragiketa bat da eta *Espainiako liburuen argitalpenaren ikuspegia* izeneko argitalpena ematen duena. Bertan hiruhileko aurrerapenak, urteko datuak eta bilakaera taulak eskaintzen dira.

Azkenik, Kultura Sailak eskatutako *Euskarazko argitalpen ekoizpenari buruzko azterketa* inkesta proposamena da. Beraz, ez du daturik baina azterketa honetan jaso da, geroko eragiketa batzuetarako bidea prestatzen baitu.

### **Adierazleen azterketa**

*Euskadiko argitalpenari buruzko VIII. txostena. Barne merkataritza. 2004* izeneko txostenari dagokionez, aztertzen diren azterketa aldagaiak honako hauek dira: argitalpen enpresa; argitalpen ekoizpena; merkaturatzea; fakturazioa; kostuak; egile eskubideak; sustapen eta publizitatea.

Bereizitako hamalau adierazle eskaintzen dituzte, gai, hizkuntza edo geografia banaketaren arabera eta elkartutako argitaletxeak diren edo ez kontuan hartuta.

- Enpresa integrazioa
- Nominapeko enplegatu kopurua
- Enpleguaren bilakaera
- Argitaratutako titulu kopurua
- Argitaratutako ale kopurua
- Batez besteko tirada
- Katalogoko tituluak
- Fakturazio zifra
- Merkaturatze ildoak
- Barne merkaturako salmenten xedea
- Liburuen batez besteko prezioa
- Gai desberdinen ildoan arabera fakturazioa
- Egile eskubideen argitalpen kostuak
- Publizitateko inbertsioa

*Espainiako ISBN duten liburuen argitalpenari buruzko estatistika ustiapenetik* ateratako adierazleak zazpi dira. Kontuan hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko datuak eskaintzen dituztenak soilik aukeratzen direla. Honako hau da zerrenda:

- ISBNko liburuen inskripzioaren bilakaera
- ISBNn inskribatu eta euskaraz argitaratutako liburuak
- ISBNn inskribatu eta euskaraz itzulitako liburuak
- ISBNn inskribatutako liburuen tipologia
- ISBNn inskribatutako liburuez bestelako euskarrien tipologia

- Jardunean ari diren editore kopurua
- Batez besteko ekoizpena.

Aipatu behar da horietako bik euskarari buruzko informazioa eskaintzen dutela, hain zuzen ere, argitaratutakoak eta itzulitakoak.

Azkenik, *Euskarazko argitalpen ekoizpenaren azterketak* argitalpen ekoizpenaren esparrua honako kontzeptu eta adierazleen bitartez mugatzen du:

- Ekoizpena : 16 adierazle
- Sustapena: 4 adierazle
- Merkaturatze eta ekonomi alderdia: 25 adierazle.

### 4.2.3. Fonografia industria

#### Eragiketen azterketa

*SGAEren urtekaria* aztertu da eta ez da fonografia industriaren autonomia edo lurralde mailako daturik jasotzen.

Datuak eskaintzen dituzten iturriak Kultura Ministerioa eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila dira:

- *Espainiako ISMNn inskribatutako musika argitalpenaren estatistika ustiapena.*
- *Euskal Autonomia Erkidegoko fonografia sektorearen egoeraren azterketa.*

Lehenengoari dagokionez, esan daiteke administrazio ikerketa dela, direktoriotzat Espainiako ISMNren fitxategia erabiltzen duena, hain zuzen ere. Azterketa unitatea bertan erregistratu eta ISMNk identifikatutako musika obraren argitalpena da. Zenbaki horrek salmentarako eta alokairurako eskuragarri diren musika argitalpenak, doakoak eta egile eskubideei begira erregistratutakoak identifikatzen ditu (azken kasu horretan kopuru ale txikia ateratzen den kasuan). Garrantzitsua da aipatzea direktorio horretan erregistratzea ez dela argitaratzailearentzat derrigorrezkoa. Bere aplikazioa 1993tik ISO 10957 arauak erregulatutakoa da. Direktorioa 2002ko mar-txoan sortutako Espainiako ISMNren Agentziak kudeatu eta etengabe eguneratutakoa da.

Bigarrenean, Deustuko Unibertsitateko Aisialdiaren Institutuak egindako *Euskal Autonomia Erkidegoko fonografia sektorearen egoeraren azterketa* izenekoan, Euskadiko fonografia sektorearen errealitatea zein 2000 – 2004 bitartean izandako bilakaera aztertzen dira. Sektorearekiko hurbilpen bat egiten da

kulturaren euskal sistemarekiko lotura eta fonografia jardueraren ohiko balio katea (ekoizpen, banaketa eta salmenta faseetara mugatua) aztertuz. Sektorearen eraketaren azterketako emaitzak, ekoizpen, banaketa eta salmenta prozesuak eta diskografia enpresen egoera eskura izanik, egoeraren erradiografia itxuratzen du.

Azterketan erabilitako datuak eragile guztien %42ri dagozkie, baina horien artean daude euskal fonografia sektoreko enpresarik esanguratsuenak.

Gure inguruneko sektoreen arabera informazio iturri nagusia da.

### **Adierazleen azterketa**

*Espainiako ISMNn inskribatutako musika argitalpenaren estatistika ustiapeneko* lau adierazle nabarmendu dira:

- ISMNn inskribatu eta euskaraz argitaratutako musika obrak
- ISMNn inskribatu, euskarara itzuli eta argitaratutako musika obrak.
- Jardunean ari diren editore kopurua
- ISMNn inskribatu eta argitaratutako musika obra kopurua.

*Euskadiko fonografia sektorearen egoeraren azterketan* datu ugari zehazten dira 57 adierazleren bidez. Aztertzen diren aldagaiak honako hauek dira:

- Eragileak (kopurua eta mota)
- Zerbitzu eta baliabideak
- Titulartasuna eta nortasun juridikoa
- Langile bolumena
- Enpresa jarduera
- Diskografia enpresak
- Grabaketa orduak
- Banaketa
- Salmenta
- Diru sarrerak
- Gastuak.

Aldagai horiek bereizita daude eta tipologiaren, banaketa geografikoaren edota antzinasunaren arabera sailkatuta.

### **Azterketa kualitatiboak**

Arestian aipatutako *Euskal Autonomia Erkidegoko fonografia sektorearen egoeraren azterketa*k, hainbat gai kritikotan oinarrituta, datozen urteotan sektorearen garapena hobetzen lagunduko duen hausnarketa estrategikoa egiten du.

Teknika kualitatiboa zein kuantitatiboa konbinatzen ditu. Euskadiko fonografia sektorearen aurrekariak eta hurbilpena oinarri dituzten lehenengo bi kapituluek ikuspegi kualitatiboa dute, lehen egindako sektoreari buruzko azterketetan oinarrituta egon arren.

Euskadiko sektorearen gaur egungo egoera eta bilakaerari buruzkoa den hirugarren kapitulua kuantitatiboa da funtsean eta aurreko atalean aztertu da.

Laugarren kapituluan azterketa moduko diagnostiko bat egiten da eta azterketa etorkizunerako proposamenak eskaintzen diren atal kualitatiboago batekin amaitzen da. Izan litezkeen ekintza lerroak generikoenetik zehatzenera deskribatzen dira, helburuetara bideratzen diren ardatz estrategikoak kontuan hartuta. Helburu horiek, bestalde, ekintza lerro zehatzagoak ere ezartzen dituzte.

### **Eduki nagusiak**

Ikerketak sektoreko alderdi esanguratsuen diagnostikoari buruzko kapitulu berezi bat du. Alderdi horien inguruan eratuko dira esku hartzeko lerroak. Informazioaren antolaketak azterketa fasean jarraitutako egitura eta aurkezpen hurrenkerari erantzuten die. Gai kritikoen diagnostikorako eduki multzoak honako hauek dira:

- Euskal fonografia **sektoreko eragileen** osaketa eta ezaugarriak.
- **ekoizpena**: Diskografia enpresak eta Grabaketa estudioak
- **Banaketa**: Banaketa enpresak eta Diskografia enpresak
- **Salmenta**: Diskografia enpresak eta Salmenta guneak
- 2003ko **Ekonomi jarduera**: Euskal diskografia enpresetako gastuak, diru sarrerak, inbertsioak eta ustiapen emaitzak.

Ikerketari amaiera emateko hausnarketa estrategikoa egiten da, bere helburua sektoreko enpresen egoera hobetzeko proposamen edo ekintza lerro multzoa eskaini eta enpresa horiek musika jardueraren balio katean, eta, beraz, negozioaren ohiko eremuan, izandako eraldaketen araberrako egokitzapena sustatzea izanik. Labur-labur planteatzen diren ardatz eta helburuak jasoko ditugu:

**1. Ardatz estrategikoa.** Euskal fonografia enpresen multzoa industri sektoretzat sendotzea.

- Enpresa talde handien aurrean, sektoreko euskal enpresa independenteak balioztatzeko estrategia egokiak sortzea.

- E1. OG2. Helburua. Sektorean inplikaturako eragileen profil eta eginkizunak berriro definitzea, ohiko balio katean izandako eraldaketen arabera.
- 2. Ardatz estrategikoa.** Sektoreko enpresa jarduera eta bere balio katea dinamizatzea.
- Sektoreko eragile guztien artean, garatzen duten enpresa jarduerari dagozkion dinamizazio ekintzak koordinatzea.
  - Musika jardueraren ekoizpen prozesua optimizatzea.
  - Musika produktuaren banaketa prozesua optimizatzea.
  - Musika produktuaren salmenta prozesua optimizatzea.
- 3. Ardatz estrategikoa:** Euskal fonografia sektorearen eta euskal administrazioaren artean abian jarritako elkarrizketa eta lankidetzak sendotzea.
- Erakundeek gaur egun euskal fonografia sektoreko enpresak babesteko duten estrategia berrikustea.
  - Erakundeen eta euskal fonografia sektorearen arteko koordinazioa eta elkarrizketa bultzatzen duen komunikazio politika bat diseinatzea.
- Ikerketaren amaieran ondorio nagusiak biltzen dituen atal bat dago.

#### 4.2.4. Ikus-entzunezkoen industria

##### Eragiketen azterketa

Sektore honentzako Kultura Ministerioak eta SGAEk hurrenez hurren aurrera eramandako bi eragiketatan aurkitzen da estatistika informazioa:

- *Zinematografia estatistika: ekoizpena, banaketa eta sustapena.*
- *2006ko Arte eszenikoen, musika arteen eta ikus-entzunezkoen SGAEren urtekaria.*

Erregistroetan oinarritutako eragiketak dira biak. Lehenengoa Kultura Ministerioako Zinematografia eta Ikus-entzunezko Arteen Industriaren (ICAA) Sustapeneko Zuzendariordetza Nagusiak garatutakoa da. Bere helburu nagusia Zinematografia ekoizpen, erakusketa, banaketa eta babesari buruzko informazioa lortzea da. Zinematografia Enpresen Erregistroa erabili da direktoriotzat, bertan, derrigorrez, Espainian kokatu eta izaera natural edo juridikoa duten enpresak inskribatuta egon behar baitira, honako atal hauetako jardueraren bat eginez, hain zuzen ere: ekoizpen, banaketa, inportazio eta esportazioko enpresak, enpresa erakusleak, aretoko titularrak, etab. Datuak



*Zinea eta Bideoa datu eta zifratan* izeneko argitalpen monografiko batean jasotzen dira.

*SGAEren urtekariari* dagokionez, ez ditugu bere ezaugarriak berriro zehaztuko, baina aipatu beharra dago ikus-entzunezkoen industriaren inguruan duen informazio kopuru izugarria. Hain zuzen ere, EAERI buruzko informazioa duten 40 adierazle aukeratu dira.

Azkenik aipatu behar da *Euskal ikus-entzunezkoen Liburu Zuria*, labur-labur azalduko dena.

### **Adierazleen azterketa**

Zinematografiaren Estatistikatik hamaika adierazle aukeratu dira, eta Autonomia Erkidegoaren, aldiaren (200-2004) eta pelikularen naziotasunaren arabera sailkatutako ekipamenduei, jarduerari, ikusleei eta diru bilketari buruzko informazioa eskaintzen dute. Honako hauek dira:

- Jardunean ari diren eta zine ekoizle diren enpresa kopuruaren bilakaera
- Zine eta erakusketa areto kopuruaren bilakaera
- Areto kopurua 100.000 biztanleko
- Emandako pelikula kopurua
- Ikusle kopurua pelikularen naziotasunaren arabera
- Aretoko ikusle kopurua pelikularen naziotasunaren arabera
- Pelikulen erakusketetako batez besteko asistentzia biztanleko, pelikularen naziotasunaren arabera
- Diru bilketa pelikularen naziotasunaren arabera
- Ikusleko batez besteko gastua pelikularen naziotasunaren arabera
- Biztanleko batez besteko gastua pelikularen naziotasunaren arabera
- 2003 eta 2004an egindako zine jaialdien kopurua

SGAERI dagokionez, aipatu behar da zine datuez gain, telebista eta irratiei buruzko datuak ere eskaintzen dituela. Aipatu da jarduera, ekipamendu, ikus-entzule eta diru bilketari buruzko informazio zehatza eskaintzen duten 40 adierazle aukeratu direla. Informazio hori aldagai kopuruaren arabera bereizita dago. Garrantzitsua da zehaztea lurraldeen arabeko datuak eskaintzen dituela.

### **Azterketa kualitatiboak**

*Euskadiko ikus-entzunezkoen sektorearen Liburu Zuria*. Sektorearekin eztabaidatzeko dokumentua izenekoa Gobernuko ordezkariak eta aditu talde batek osatutako lantalde baten emaitza da. Izan ere, sektorearen ibilbide historikoaren

eta gaur egungo egoeraren (2003) azterketa kritiko bat egin ondoren, EAEk munduan izan nahi duen eginkizunarekin bat datorren ikus-entzunezkoen sektore bat eraikitzeke oinarriak planteatzen ditu. Dokumentuaren ikuspegi ekonomiko eta estrategikoa dela azpimarratzen da, sektore lehiakor bat lortu nahi duena, euskal kulturaren eta nortasunaren garapen tresna moduan duen eginkizuna ahaztu gabe.

Bere helburu zehatzak lau dira:

- Sektorearekin batera egindako diagnostia definitu eta egitea.
- Sektore lehiakorra garatzeko behar diren neurriak proposatzea.
- Sektoreko enpresen eta bertan eragina duten eragile publiko nagusien eginkizunak definitzea, jardunak koordinatu eta estrategia komun bat garatzearen.
- Sektorea modu iraunkorrean bultzatzeko plataforma sortzea.

Lehenengo kapituluak ikus-entzunezkoaren kultur motore eta ekonomia sektore gisako eginkizun bikoitza aurkezten du. Ikuspegi hori bere bilakaeraren eta aurreikusten diren etorkizuneko joeren azterketa batez osatzen du.

Bigarren kapituluak sektorearen ikuspegi orokorra eskaintzen du, Europako zein Espainiako ikuspegitik.

Euskadiko ikus-entzunezkoen sektoreari buruzko kapitulu berezia dago, eta bertan, euskal kultur garapenean duen eginkizuna, enpresa dimentsioa eta bere dinamika aztertzen dira garapenari buruzko hausnarketa orokorrek in amaituz.

Azkenik, euskal ikus-entzunezkoen sektorearen garapen estrategia itxuratzeko, kultur politika orokorreko oinarriko esparruak ikus-entzunezkoetan ezartzea da abiapuntua. Horrela, helburuak, indarguneak eta estrategia aukerak eta garapen urratsak zehazten dira. Lehenengo zentratze-etapa bat planteatzen du.

Hasierako etapan garatu beharreko jarduerak ildoak dagokienez, honako ardatz hauetan multzoka daitezke:

- Sektoreen araberako antolamendua
- Negozio ereduaren hobekuntza
- Baliabideak indartzea
- Merkatua dinamizatzea
- Ikus-entzunezko kultura bultzatzea

Lerro multzoak gain, sektorean zeregina duten entitateak planteatzen dira, eta jarraipen batzordea sortzea eta ekintza plan zehatz bat garatzea proposatzen da.

Azkenik, sektorea babesteko neurri sistema orokor bat eskaintzen da, bertan ikus-entzunezkoetarako politika publikoaren sei esparru, hainbat neurri egokitu eta berezi eta eztabaidatu beharreko irizpide berriak definitzen dira.

### 4.2.5. Multimedia eta kultura digitala

#### Eragiketen azterketa

Bi iturri aztertu dira, alegia, SGAE eta Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren 2004ko *Memoria sozio-ekonomikoa*. Hala ere, jasotako informazioak teknologia berrien eskuragarritasun eta erabilera aipatzen ditu, horien erabilera eta edukietan apenas sakondu gabe. Azken finean, informazio horren “kultur” maila erlatiboa da, edo, behinik behin, eztabaidagarria.

Ez da berriro SGAEren kasua zehaztuko, oraingo honetan ere EAERI buruzko informazio gehiegirik eskaintzen ez duelako.

Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren 2004ko *Memoria sozio-ekonomikoari* dagokionez, beste hainbat iturri erabiltzen ditu, nagusiki, Eustaten *Informazioaren gizarteari, familia/enpresei buruzko azterketa*. IETen informazioa jaso da, azaldutako adierazleek kultur gairik bereziki aipatzen ez dutela zehaztu behar bada ere; aitzitik, Informazioaren Teknologiek familia esparruan zein enpresarenean duten sarrera mailari buruzko informazioa ematen dute, teknologia horien erabilera gehiegi sakondu gabe (bisitatutako orrialde motak, Interneteko deskargak, etab.). Teknologia horiek kultur sektorean duten eragina kontuan hartuta, interesgarria litzateke ildo horretan sakontzea. Horri buruz aurkitu den intereseko informazioa kultur ohituren atalean komentatuko da.

#### Adierazleen azterketa

SGAETik adierazle bat besterik ez da atera:

- Interneteko erabiltzaileak EAEn.

2004ko *Memoria sozio-ekonomikotik* 26 aukeratu dira, ESICetik ere bildu direnak, baina lehen aipatutakoa kontuan hartu behar da. IET ekipamenduak, Interneten erabilera, sarerako sarbidea, web orrialdea izatea edo merkataritza elektronikoa bezalako aldagaiak aztertzen dira.

Ez da azterketa hau amaitu nahi Kulturaren Euskal Planerako Sabin Uriartek prestatu zuen ponentzian egindako balorazioa jaso gabe. Bertan, sektore horretako industria ehundurari buruzko informazio berezirik eza nabarmentzen zuen, eta etorkizuneko Behatokiari hainbat adierazle proposatzen zizkion, besteak beste:

- Multimedia ekoizpenean diharduten enpresa kopurua
- Multimedia enpresen negozio bolumena
- Enplegatutako langile kopurua
- Beste hainbat kultur industriaren azpi-kontratazio bolumena
- Esparru bakoitzeko produktu berrien kopurua
- Lehendik gauzatutako eta oraindik merkatuan dirauten produktu kopurua
- Enpresa horien esportazio bolumena
- Euskal multimedia sektoreko salmenta portzentaia bolumen osoarekiko

## V. AZKEN ONDORIO ETA HAUSNARKETAK

Kapitulu honetan funtsezko alderdiak laburbiltzen dira, alegia, txosten hau prestatzeko egindako bilduma eta azterketa lanaren elementu aipagarrienak.

Azken finean, jasotako informazioaren, iturrien, eragiketen eta adierazleen oinarritzko ezaugarriak aurkeztea da helburua.

### INFORMAZIOA ETA BERE KALITATEA

Zeharkako lerroen informazioari buruzko balorazioari dagokionez, aztertu beharreko gaia kontuan hartuta, informazio kopuru aldakorra da.

*EAEko azpiegitura eta ekitaldien mapak* informazio zabala, oso zehatza eta eguneratua eskaintzen du, nahiz eta, aipatu denez, txosten hau prestatzerakoan, oraindik amaitu gabe dagoen. Jasotzen duen informazioaren erabilgarritasun eta fidagarritasuna berau eguneratzearen baitan egongo dira.

Kulturaren euskarak duen lekua edo kultura eta komunikabideen arteko harremana berariazko informazio urria duten elementuak dira. Zeharkako ikuspegiei buruzko atalean sektoreen araberrako azterketetan euskarari lotutako edukiak zehaztu dira.

Kulturaren aurrekontuen eta gastu publikoaren ekonomia eraginaz informazio berezi gutxi dagoela esan daiteke eta INEtik eta Kultura Ministeriotik dator. Horixe bera gertatzen da kultur eta arte irakaskuntzei dagokionez. Zeharkako lerro horiei buruzko informazio oso eta zehatza edukitzeak metodologia zailtasunak dakartzala zehaztu behar da, hainbat kasutan, elikatzen dituzten informazio iturriek ez baitute kulturari lotutako edukien kokapen zehatzik ahalbidetzen. Horrek aldeztu aurretik berariazko kultur elementuen kontzeptu-sortze, definizio eta sailkapen lan bat eskatuko luke.

Azkenik esan kontsumo ohitura eta praktikei dagokienez, informazio asko dagoela badirudi ere, irakurketa bezalako hainbat praktika edo ohiturei buruzkoa dela eta konparatzen zaila, gainera, estatu mailan SGAEk eta Kultura Ministerioak egindako inkestak eskaintzen duen informazioa salbu.

Txosten honetan estatistika informazioa duten sektoreak bereziki azpimarratu dira. Hala ere, lehenengo begiratu batean, azpimarra daiteke badirela apenas informaziorik ez duten artxiboak, ondarea, literatura edo ahozko tradizioa bezalako sektoreak.

Artxiboetan eragiketa bat bildu da, baina EAEn kokatutako hiru artxibori buruzko informazioa besterik ez duen sektorea da. Ondareari dagokionez, iturri bakarra Kultur intereseko ondasun erregistroari zein ondasun higigarrien inventarioari buruz Kultura Ministerioak egiten duen datuen ustiapena da.

Bertsolaritzari dagokionez, gure ingurunean hain berezia, dinamikoa, egituratua eta gizaratean presentzia duen sektorea izanda, informazio gutxi daukagu, hain zuzen ere, argitaratutako azken Soziometroetako batean azaldutako iritzien ingurukoa, nagusiki, kontsumo, ezagutza eta herritarrek eginiko balorazioari buruzko iritziak. Honez gain, Bertsozale Elkarteak ere badu sektoreari buruzko informazioa.

Liburutegiak, museoak eta argitalpen industria bezalako sektoreek EAEn sortutako informazio iraunkorra dute, konparaketak egitea ahalbidetzen duena, eguneratuta dagoena eta urtean behin edo urte birik behin eskaintzen dena. Hobetu beharreko alderdi bat informazioaren hedapena litzateke.

Esan daiteke Kultura Sailak sustatutako sektoreen araberako azterketen ondorioz, arte plastikoei eta ikusizkoei, antzerki eta dantzari, artisau industriei edo fonografia sektoreari buruzko informazioa badago ere, eragiketa horiek sendotu eta sistematizatu egin beharko dira, benetan badugula estatistika informazioa esan ahal izateko.

Beste kontu bat erantzun maila eta informazioaren fidagarritasunarekin zerikusia duena da, kasu batzuetan hobetzeko modukoa baita. Ildo horretan, zehaztu behar da ikerketako batzuk oraindik osatzeko daudela, besteak beste, *Azpiegitura eta ekitaldien mapa* edota *Antzerki eta dantzari buruzko azterketa*. Hala ere, azterketa horiek egitean metatutako esperientziak etorkizunean izan litezkeen akatsak zuzentzeko balio behar du. Horrek azterketa unibertsoaren definizioan, datuak biltzeko metodologian bertan, edota informazioa jasotzean egiten den balioztapenean eragina du.

## ITURRIAK ETA ERAGIKETAK

Informazio iturri nagusiak honako hauek dira:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila
- Kultura Ministerioa
- SGAE

### Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila:

Ondarearen azpi-sistemari dagokionez, funtsezko informazio iturria da, estatistika eragiketak *Liburutegi eta museoak* edota *Irakurketa publikoaren mapa* izanik.

Sorkuntzaren azpi-sistemari dagokionez, lehenengo kasuan, antzerki eta dantzari eta arte plastikoei eta ikusizkoei buruzko azterketak egiteak eskura dugun beste hainbat iturriren informazioa osatzea ahalbidetzen du; bigarrenean, berriz, hutsune nabarmena zuen sektore bati buruzko datuak edukitzea. Horiez gain, une honetan lantzen ari den *Zuzeneko musikari buruzko azterketak* eskainiko duen informazioa ere izango dugu.

Kultur industriren azpi-sistemari dagokionez, *Artisau industriei buruzko azterketak*, gai horretaz beste ezein iturritan informaziorik ez baita, eta fonografia sektoreari buruzkoak, aurreko kasuan bezala, hutsuneak betetzen laguntzen duen informazio baliotsua eskaintzen dute.

Azkenik, *Azpiegitura eta ekitaldien mapa* egiteak eskatu duen ahalegina airtortu beharra dago, proiektuaren tamaina dela eta.

Eragiketa horien tenporaltasun eta maiztasunari dagokienez, laburbilduta, honako hauek aipatuko ditugu:

- **Ohiko eragiketak:** liburutegiei (urtean behin) eta museoiei (bi urtez behin) buruzko estatistikak.
- **Eragiketa puntualak:** *Irakurketa mapa*; *Antzerki eta dantzari buruzko azterketa*; arte plastikoei eta ikusizkoei buruzkoa; artisautza industriak; fonografia sektorea eta *Azpiegitura eta ekitaldien mapa*.

Erabilitako metodologiari dagokionez, kasu guztietan azpiegitura eragiketa batzuek edo inkestek jasotako informazioa dugu, gehienetan eroldako datuak bildurik. Salbuespena, bere tipologia dela eta, *Irakurketa mapa* da, beste hainbat eragiketaren bilduma bat egiten baitu.

Definitu eta hobetu beharreko elementu gisa, informazioaren komunikazioa dugu. Ildo horretan, Behatokiak hedatzeko bide nagusi gisa duen eginkizunak soslai hori baretzen lagunduko du.

### **Kultura Ministerioa-INE:**

Erabilitako beste informazio iturri nagusietako bat da, bereziki, *Kultur estatistikaren urtekarian* jasotako informazioa dela eta. Beste hainbat iturri eta eragiketaren bilduma bat da eta hainbat esparrutan, zeharkako lerroei dagokienez, zehazki, informazio iturri bakar bilakatzen dira. Esate baterako, arte eta kultura irakaskuntzez, enpleguaz eta kultur enpresaz ari gara.

Urtekariak gain, Ministerioak INErekin batera, *Liburutegi eta museoei buruzko estatistikak* sustatu edo eskatzen ditu, eta informazioa Kultura Sailak aurrera daramatzen eragiketekin eta gure testuinguruan informaziorik ez duten esparruetako beste batzuekin, artxiboei buruzkoekin, kasu, konparatzeko aztertu dira estatistika horiek.

Ondoren, aurrera daramatzen eragiketen tenporaltasun eta maiztasuna laburbilduko ditugu:

- **Ohiko eragiketak:** *Estatuko titulartasuna duten artxiboei buruzko estatistika* (urtean behin); *liburutegiei* (urte birik behin) eta *museoei* (urte birik behin) buruzkoa. *Espainiako ISMN duen musikari buruzko argitalpenaren estatistika* (urte birik behin) eta *Zinematografiari buruzkoa* (urtean behin); *Kultura finantzaketa eta gastu publikoari buruzko estatistika* (urtean behin); *Arte eta kultura irakaskuntzei buruzko estatistika* (urtean behin); *Zerbitzuei buruzko urteroko inkesta* (INE).
- **Eragiketa puntualak:** *Kultur intereseko ondasunen erregistroko eta ondasun higigarrien inbentarioko datu baseei buruzko estatistika ustiapenak*; *eszena baliabideen datu baseari buruzkoa*; *musika eta dantza baliabideen datu baseari buruzkoa*. *Espainiako kultur ohitura eta praktikei buruzko inkesta*.
- **Egoeraren araberrako eragiketak:** *ISBN duten liburuen argitalpenari buruzko estatistika*, *Familia aurrekontuei buruzko inkesta jarraitua*.

Metodologiari dagokionez, azpimarratzekoa da erregistro zein administrazio datu baseez egiten duten estatistika ustiapen kopurua, zehazki, zazpi eragiketa. Beste hainbat azterketatako estatistikak ere erabiltzen dituzte, zeharkakoen kasuan, bereziki.



Azkenik, komunikazioari dagokionez, Interneten bidez beste hainbat euskarriren artean zabaltzen duten informazio ona azpimarratu behar da. Bertan, datuez gain, oso metodologia aurre-gogoeta erabilgarriak eskura daitezke. Bereziki, *Kultur estatistiken urtekariaren* ahalegina aipatu behar da.

### **SGAE Taldea - Egile Fundazioa:**

Aurretik ere SGAEk sortzen duen informazio baliotsua aipatu da, sorkuntzarekin edota kultur industriekin bereziki lotuta dauden sektoreak aztertzeke funtsezkoa baita. 2006ko *Arte eszenikoen, musika arteen eta ikus-entzunezkoen urtekaria* ildo horretan derrigorrezkoa dugun informazio kopuru handiena eskaintzen duen eragiketa da. Erregistro batean oinarritutako estatistika ustiapena da eta datu kopuru izugarria izatea ahalbideratzen die.

Ohituren gaia aztertzeke oinarritzko beste eragiketa bat Kultura Ministerioarekiko lankidetzan egindako 2002-2003ko *Kultur ohitura eta praktikei buruzko inkesta* da.

Azpimarragarria da bestalde interneten zein paperez gauzatzen duten zabalakunde egokia eta komunikazioa.

### **Beste hainbat iturri:**

Euskadiko Editoreen Elkartea informazio iturri garrantzitsua da argitalpen industriaren eta irakurketa ohituren azterketarako. EAEko informazio berezia dute, etengabea eta eguneratua, inkesten bitartez jasotakoa, hain zuzen ere.

Beste hainbat iturri ere kontuan hartu dira, besteak beste, Estatistikaren Euskal Institutua, Jaurilaritzaren Lehendakaritza, Ekonomia eta Gizarte Kontseilua edo CIES. Horiiek guztiek bereziki kulturari lotuta ez dagoen informazioa eskaintzen dute, baina esparru horrekin nolabaiteko lotura duen informazioa atera da. Zeharkako ikuspegietan oinarritzen dira bereziki, aztergai diren elementuak kultur ohitura eta praktikak edota komunikabideak izanik. Kasuren batean, kultura digitalaren atalean jaso dira.

## **ADIERAZLEAK**

Adierazleak txosten honetako atal berezietan aztertu direnez gero, ondoren elementu nagusiak azpimarratuko dira:

### **Zeharkako lerroak:**

*Udal esparruko azpiegitura eta ekitaldien mapak* eskaintzen duen informazio kopuru izugarria azpimarratu behar da. Bestalde, kultur ohiturei dagokienez,

esan daiteke adierazle gutxi jaso direla baina bereizketa eta sailkapen ugariekin azaltzen direla. Teknologien erabileraren presentzia errealitatea da hainbat eragiketatan, baina etorkizunean bereziki zaindu beharreko alderditzat jotzen da.

Enpleguarekin eta kultur enpresa edo kultur irakaskuntzekin lotutako eragiketeta berezietako informazio eskasia nabarmena da.

#### **Kultura ondarearen azpi-sistema:**

Kasu honetan 99 adierazle daude guztira. EAERI buruzko informazio berezia dute eta *Liburutegi eta museoetako buruzko estatistikei* eta *Irakurketa mapari* dagozkie. Kultura Ministerioak egiten dituenekin alderatzeko aukera ematen dute. Lurralde historikoetako informazioa ere badute.

#### **Sorkuntza eta adierazpen artistikoen azpi-sistema:**

Kasu honetan, EAERI buruzko informazioa Kultura Sailak eta Sareak bultzatutako azterketek ematen dutena da. 58 adierazle dira eta antzerki eta dantzari dagokienez, SGAEK ematen dituenekin aldera daitezke.

SGAEK aurkezten dituen adierazle kopuru handia azpimarratu behar da (76) baita eskaintzen duen lurralde historikoetako informazioa edukitzeko aukera ere.

#### **Kultur industriaren azpi-sistema:**

Berriro ere EAERI buruzko berriazko informazioa dugu, 84 adierazleren bitartez. Sektoreen araberrako azterketek jasotako zeharkako informazioa zehaztu daiteke. Hain zuzen ere, hizkuntza argitalpen eta musika industriaren kasuan, enplegua, enpresak eta ekonomia informazioa.



[kulturabehatokia@ej-gv.es](mailto:kulturabehatokia@ej-gv.es)